

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko maiatzaren 17a / 496. zenbakia

lau, hiru, bi, bat...



PAZKOAK02

UGARTE

ARROZTEGIA-ALTZARIAK



Apainketa • Soruak • Leihoak • Ateak • Horma armairuak



San Juan 1 A, BERGARA. Tel.: 943 76 54 91. Faxe: 943 76 08 04.

GIDE COLOR

ZURE PINTURA DENDA



- ✓ Zenefak pintatzeko txantiloioiak.
- ✓ Paper pintatuak.



40 mila kolore egiten ditugu momentuan

- ✓ Egurra babesteko tratamendua

BERRIA

- ✓ Pintura artistikorako materiala




- ✓ Parketak, oholtza flotagarriak, moketak, sintasolak, alfonbrak.



Ordutegia:
08:00-13:00 eta 14:30-19:15 Zapatuetan: 09:30-13:00

Tf. 943 76 52 42 Faxe 943 76 56 17
Amillaga 5 (Renault ondoan)

ATREBENTZIAEZPADA/ Azken urtiotan Pazkoetako giruak gora ala behera egin dauela uste dozu?



BALENTIN EGIDAZU
51 urte



MAITE ARANZABAL
39 urte



MARIA PILAR DE PEDRO
39 urte



XABIER UNAMUNO
57 urte



SOLEDAD SÁEZ
65 urte



ALBERTO HERRÁN
34 urte

Ba, azken urtiotan nik uste dot beherunzko doiala. Diruagatik batez be, igual. Jente gaztiak ez dauka dirurik eta... Gaztiendako ekitaldixak egon arren, ez dago ambiente haundirik.

Ez dakit, normalian kanpora juaten naizelako. Aurretik, biharbada, Bergaran geratuko naiz. Gabez gutxi ibiltzen naiz. Nik nahixago dot goizez irtetzia; gabeko zaratak ez jat gustatzen.

Gero eta ambiente haundixagua dago, nire ustez, kanpotik jente gehixago etortzen dalako. Gabez ambiente politta egoten da, eta goizez be bai. Dantzaldixak gustatzen jat neri.

Ez gora eta ez behera. Beti antzeko gauzak egoten die, eta ez da gauza berririk egoten. Urte batzuetatik honera zezenak-eta egon die, baiña jente asko juaten da kanpora jaixetan.

Kanpuan egoten gara. Baiña domekan egoten da ambiente haundixen, kanpotar asko etortzen da-eta. Pazkoetan giro ona egon izan da beti. Jai onak die. Hala be, ez naiz jaizalia.

Pazkoetako giruak dezente egin dau behera, jente asko kanpora juaten dalako. Aste bukaeran be jente gutxiago etortzen da. Gaurko gaztiak beste modu baten bizi ditue jaixak.

KONTUAN HARTZEKOAK

OHARRAK

1942AN JAIOTAKOAK

1942an jaiotakoen afaria ekainaren 1ean Azpeitxi jatetxean, 21:00etan. Aurretik, 19:00etan, meza izango da Santa Marinaran, eta mezaren ondoren, taldeko argazkia aterako dute. Izenematea (15 euro aurretik) Mizpildi okindegian, Edel tapiz dendan edo Azpeitxi jatetxean.

1958AN JAIOTAKOAK

1958an jaiotakoen afaria ekainaren 15ean Azpeitxi jatetxean. Izenematea (12 euro) Irrintzi kafetegian ekainaren 5era arte.

PILOTA SAILEKO ZOZKETA

Bergara KEko Pilota Saileko zozketan 4.766 zenbakiak jaso du lehen saria. Irabazleak Anoetan jokatu den buruz buruko finalerako bi sarrera eta 500 euro jasoko ditu. Bigarren saria (3.770 zenbakia), herriz, Amaia Azurmendik eskuratu zuen.

ODOL ATERATZEA

Bergarako Odol Emaileen Elkartek jakinarazi duenez, hurrengo odol ateratzea maiatzaren 29an egingo dute, 18:30ean, Seminarioko lokalean. Elkartek dei egiten die emaileei odola ematera joateko.

JARDUNEN AGENDA

HERRI BAZKARIA MARTITZENEAN

Herriko hainbat koadrilatako ordezkariak, Etxerat taldeak, Xamatx dantza taldeak eta Jardun elkarteak antolatutako herri bazkaria izango da martitzenean San Martin plazan. Txartelak 12 euroren truke salgai daude Ariznoa, Pol-Pool, Kortazar eta Arrano tabernatan eta Jardun elkartearen domekara arte.

OLINPIADAK ATZERATU

Maiatzaren 25ean hasiko dira Olinpiadak. Bien bitartean, 8 eta 11 urte arteko gaztetxoek izena emateko aukera daukate. Argibideak Jardunen, 943 76 08 19 telefonoan.

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 17	
MOZOS, San Pedro 4.....	943 76 12 15
ZAPATUA, 18	
CAMACHO, Oxirondo 4.....	943 76 11 74
DOMEKA, 19	
CAMACHO, Oxirondo 4.....	943 76 11 74
ASTELEHENA, 20	
PUY, Barrenkalea 25.....	943 76 19 63
MARTITZENA, 21	
GUALLAR, San Antonio 5.....	943 76 11 05
EGUAZTENA, 22	
ESTELLA, Matxiategi 5.....	943 76 19 63
EGUENA, 23	
MOZOS, San Pedro 4.....	943 76 12 15

ALKATEAREN AGURRA/ Victoriano Gallastegi



Urtebete igaro da jadanik eta, ohiturari eutsiz, Pentekoste Jaiean atarian bergarar guztiak agurtu nahi ditut eta, era berean, agurtu eta ongietorria eman nahi diet egun kuttun hauek gurekin igaroko dituzten guztiei.

Bergara hirigintzako aldaketa garrantzitsuan murgilduta dago eta lerro hauetaz baliatu nahi dut bergarar guztiei Udala Korporazioaren eskerrik beroena adierazteko obren ondorioz sortzen diren eragozpenen aurrean izandako ulermenagatik. Gaur egun informatika alorrean atzera gelditzeak gizarte osoari oztopo eta mugak jartzea ekarriko ligukeela eta, Bergarak, Debagoieneko beste herriei batera, apustu garbia egin du teknologia berrien aurrean e-debagoiena proiektua bultzatuz, eta Bergara izango da "fibra optikoa" jarriko duen lehenengo herria.

Beste alor batzuek ere aipatuko nituzke, Juana de Asbajeren -Sor Juana Inés de la Cruz- jaiotzaren 350. urteurrena zela eta, Udala honek, Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearekin batera, martxoaren 1erako antolatu zuen ekitaldia esate baterako, "Mexikoko fenixa" edota "Hamargarren musa" moduko kalifikazioak jaso izan dituen poeta omentzeko. Hor ditugu Bergarako Kirol Elkartearen 50. urteurrenaren ospakizunak ere; eta Udala diru-laguntza eman du Elkartearen bitzita jasoko duen liburua argitaratzeko.

Bukatzeke, gure eguneroko lanak alde batera laga eta, Pentekoste Jaiak egun pozgarriak pasatzeko gogoz hartuko ditugula espero dut; lanerako eta jai-girorako astia ere izan behar da eta.

Oroitzapen berezi bat arrazoiren batengatik gure artean izaterik ez dutenentzat, eta nire desiorik onenak disfrutatu ahal ditugunentzat.

Zorionak!

Victoriano Gallastegi, Bergarako alkatea

ETABARRUAN...

MENDEKOSTE JAIK 2002

Egitaraua	/4
Orkestra eta	
Golden Apple	/7
Barrakak	/8
Pegatina	
Lehiaketa	/11
Errekortadoreak	/12
Zezenketa	/13
Dantzak	/14
Jantziak	/15
Kartelak	/16
Rocka	/19
Txosnak	/22
Dantzaldiak	/27
Pazkoetako oroitzapenak	/28
Sukaldariak	/30
Herri bazkaria	/32
Antzerkia	/35
GOITB	/36
Erraldoiak	/38
Zorion agurrak	/41
Kontuola	/42
Goibekokale	/44
Erretratua	/46



Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Julen Iriondo
Aintzane Irizar

MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe
PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

EGITARRAUA

JAIETAKO EGITARRAUA

Egubakoitza 17

20:00 Jaiak hasiko dira etxafuego jaurtiketarekin eta BITORIANATXOren JAITSIERAekin.



BITORIANATXOAREN HASIKO DA JAI.

20:00 Udal Musika Bandaren KALEJIRA, hiriguneko kaleak alaitzeko.

20:00 Matxiategin BARRAKAK irekiko dituzte.

20:30 Bideberriko TXOSNAK irekiko dituzte.

20:30-21:30 DANTZALDIA Akelarre taldearekin, San Martin plazan.

22:30 Golden Apple Quartet taldearen *Con cierto estilo Golden* IKUSKIZUNA, Bergarako Orkestra Sinfonikoarekin, Udal Pilotalekuan. Enrike Ugarte Alonsok zuzenduko du.


23:00 DANTZALDIAren jarraipena. Akelarre taldea, San Martin plazan.

24:00 ROCK KONTZERTUA Bideberri: Gloomy House, Meows, La Secta eta Super Cools.

Zapatua 18

09:00 XXII. Haur eta Gazteen Plastika Sariketa. Beart taldeak antolatuta. Bearten egoitzan (Bolu kalea, 49).

10:00 DIANA, auzoak esnatu ondoren, San Martin plazan elkartuko dira. Oxirondotik, Udal Txistulari Banda. Labegaraietatik, Kobok dultzaineroak. Bolutik, Josu eta Jokin soinu jotzaileak. Gero MIZPIRUALDERA BISITA egingo dute



PILOTARIRIK ONENAK FRONTOIAN.

dultzainero eta txistulariek.

11:00 ATLETISMO PROBA KONBINATUAK, Agorrosingo pistetan

11:30 Elkarteen arteko SUKALDARITZA LEHIAKETA. Bakailoa pil-pilean prestatuko dute elkarrekin, San Martin plazan, trikitilariak alaituta.

13:00 XXII. Haur eta Gazteen Plastika Sariketako sari banaketa. Beart artisten elkarteen egoitzan (Bolu kalea 49).

16:30 PILOTA PARTIDU interesgarriak, Udal Pilotalekuan.

17:00 Hortzmuga taldearen *Badum mundua* KALE ANTZERKIA, Xabier maria Munibe plazan.

17:00 XAKE azkarreko Euskadiko Txapelketa, Ipintza II Institutuan, eta Xakeko adiskidetasun Kluben zirkuitua.

17:45 BONBA JAPONIARRAK umeendako, San Martin plazan.

18:00 ERREKORTADOREEN Euskadiko IV. TXAPELKETA. Txapelketa horretan Nafarroako, Gipuzkoako, Iparraldeko eta Bergarako bikoteek parte hartuko dute.

Briz ASEGURUAK S.L.



ZURICH
ASEGURUAK

CASIMIRO BRIZ SALINERO

Aseguru - Aholkularia

Zorionak denoi!

Araba etorbidea 3 - 2. 20.500 Arrasate
T: 943 797 152 T/F: 943 794 235

brizseguros@euskalnet.net

Barrenkalea 44. 20.570 Bergara
T: 943 765 785 F: 943 769 246

Euskaltel
móvil

Ondo pasau jaietan!

Ibargarai 20 Tel. 943 76 94 58

Pcphone 21

BANATZAILE OFIZIALA

EGITARAUA



ERRALDOIEN ALARDEAN BURUHANDI ETA KILIKIAK ERE IBILIKO DIRA KALERIK KALE.

18:30 ERRALDOIEN ALARDEA, Azpeitiko eta Bergarako erraldoien konpartsek eta Bergarako erraldoiek, kilikiek eta buruhandiek hartuko dute parte. Udala Txistulari Bandak eta Kobok Bergarako dultzainero taldeak izango dituzte lagun.

Ibilbidea: San Martin plaza, Barrenkalea, Irizar pasealekua, Fraiskozuri plaza, Ibargarai hiribidea, Ramon Maria Lili, Bidekurutzeta eta San Martin plaza.

23:30 KONTZERTUA, San Martin plazan: Kaotiko eta 4 itzal taldeekin

23:30 ROCK KONTZERTUAK, Bideberrin: Mooney Suzuki, Nitwitz, Rock A. Hulas eta The elevators.
23:30 DANTZALDIA, Espoioian: Tarantela orkestra.

Domeka 19

08:15 Udala Txistulari Bandarekin ALBORADA.
08:30 Elgoibarko Dultzaineroen KALEJIRA, San Martin plazatik.
09:00 Lehen ENTZIERROA. Ibilbidea: Gaspar jatetxeko garajea, Barrenkalea, Bidekurutzeta, San Martin plaza, Ramon M. Lili eta zezen-plaza. Segidan, ENBOLATUAK.
10:00 TALDEKAKO XAKE Txapelketa, 31. Bergara Hiria saria, Ipintza II Institutuan.
10:00 TXIRRINDULARI LASTERKETA: 23 urtez azpikoendako eta elitekoendako 67. Mendekoste saria, Lokatza Ziklismo Eskolak antolatuta.
11:00 MEZA NAGUSIA, San Pedro elizan. Udala Korporazioak hartuko du parte, Udala Musika Bandak eta Udala Txistulari Bandak lagunduta.
11:30 Hamabost urtetik beherako bikoteendako 25. EUSKADIKO DANTZA TXAPELKETAren kanporaketak, San Martin plazan. 15 bikote sailkatuko dira.
12:00 Euskal Selektzioa osatuko duten jokalariek aukeratzeko XAKE lehiaketa konbinatua, Ipintza II institutuan.
12:30 Udala Musika Bandaren KONTZERTUA, Espoioian.
Egitaraua:
Campo de rosas. Pasodoblea M. Gz. Bastida
Mendi-Mendiyan. Operako fantasia J. M^o Usandizaga
Condacum J. V. Der Roost
La Leyenda del Beso. Zartzuelako selektzioa Soutullo y Vert

Music For a Solemnity
J. de Hann

16:30 PILOTA PARTIDU interesgarriak, Udala Pilotalekuan

17:00 XAKE Partida Azkarren Txapelketa Irekia, Ipintza II Institutuan.

17:30 KALEJIRA, San Martin plazatik zezen-plazaraino. Parte hartuko dute: Mutrikuko Musika Bandak, Elgoibarko dultzaineroak eta mandaoak, agoaziltxoak, agintariak eta herriko zaleen koadrilak. Geldialdia egingo dute Lasa zaharrean.

17:30 Hamabost urtetik beherako bikoteendako 25. EUSKADIKO DANTZA TXAPELKETA, San Martin plazan, Udala Txistulari Bandak eta trikitalariek lagunduta.

18:00 ZEZEN FESTA, Salamancako López Chávez-en ganaduekin, Betizu elkarteak antolatuta.

Nobilleroak: Eduardo Gayo eta Javier Tejedor salamancarrak. Burtzikaria, Javier Ciordia, Kalagorrikoa.

20:00 Trapu Zaharra antzerki taldeak *Lau tenore* KALE ANTZERKIA egingo du, Xabier Maria Munibe plazan.

23:00 Nueva Etapa orkestrarekin 'CAMP' DANTZALDIA, San Martin plazan.



UMEENDAKO ANTZERKIA MUNIBEN.



Pentekoste zorientsuak guztioi!

GAZTELU BURDINAKI DENDA

Mintegi 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • Faxa: 943 76 32 52 • BERGARA



JOXAN ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tf. 943 76 70 29

EGITARUA



BOST EGUNEAN ZEHAR JAIGIROA IZANGO DA NAGUSI HERRIKO KALEETAN.

Astelehena 20

08:30 KALEJIRA, Los Incansables txarangarekin, zezen-plazaraino.
09:00 Bigarren ENTZIERROA. Ibilbidea: Gaspar jatetxea, Barrenkalea, San Martin plaza, Bidekurutzeta, Ramon Maria Lili eta zezen-plaza.
 Segidan, ENBOLATUAK, Los Incansables txarangak alaituta.
10:30 Ollagorri elkarrekin antolatutako PLATER TIRAKETA, Gorko Iribide zelaian.
11:30-14:00 Ipintza II-ko patioan umeendako JOLASPARKEA.
 Ordu berean, Udala Musika Bandaren kalejira.

12:30 Udala Musika Bandaren KONTZERTUA, Espoioan.

Egitaraua:

Sagarpe. Euskal Martxa
 A. Gz. Chirlaque
El Metrónomo de Maelzel. Fantasia
 M. Gz. Bastida
Marcha Turca
 W. A. Mozart
Shall we Dance?
 Porter-La Calle-Ben
Bergarako Ereserkia
 A. Gz. Chirlaque
17:00-20:00 JOLASPARKEAren jarraipena Ipintza II-ko patioan.
18:00 Umeendako JOLASAK zezen-plazan: pottokak, txekor txikiak... Los Incansables

txarangak lagunduta.

20:00-21:00/23:00-01:00 Triki ta ke taldearekin ERROMERIA.

23:00 ROCK KONTZERTUA, Bideberrin: Betagarri, Kuraia, Basque Country eta UKO.
23:00 Diamante orkestrarekin DANTZALDIA, Espoioan.


Martitzena 21

08:30 KALEJIRA, Los Incansables txarangak alaituta, entzierroaren bidetik zezen-plazaraino.
09:00 Hirugarren ENTZIERROA. Ibilbidea: Gaspar jatetxea, Barrenkalea, San Martin plaza, Bidekurutzeta, Ramon Maria Lili eta

zezen-plaza. Segidan, enbolatuak.
11:00-20:00 Mendekosteetako KARTEL ERAKUSKETA, Udaletxeko arkupeetan.
11:30 Egunean, kaleak alaituko dituzte Xafre eta Zaharra eta Josu eta Jokin bikote TRIKILARIEK eta Los Incansables txarangak.
11:30-14:00 HERRI TRENA, Fraiskozuri plazatik abiatuta.
12:30 HERRI KIROLAK ERAKUSTALDIA, San Martin plazan: Olasagasti eta Arrospeide aizkolariak eta Perurena aita-emeak.
14:30 HERRI BAZKARIA, Etxerat taldeak, Jardunek, Xamatx dantza taldeak, Txosna batzordeak eta herriko koadrilek antolatuta.
16:00 Bazkalondoan, JOKOAK, eta Iraunkorra txarangaren emanaldia.
16:30 PILOTA PARTIDU interesgarriak, Udala Pilotalekuan.
17:00-21:00 HERRI TRENAREN bira, Fraiskozuri plazatik irtenda.
18:00 Txekor eta behi ENBOLATUAK, koadrilendako, zezen-plazan.
 Gero, Los Incansables-ekin KALEJIRA.
20:00-21:00 eta 22:30etik aurrera DANTZALDIA Egan taldearekin.
24:00 San Martin plazan elkartu eta BITORIANATXOREN IGOERA.




HERRI BAZKARIA SAN MARTIN PLAZAN.



Ur~bide
 I T U R G I N T Z A

Zubieta, 28-behea. BERGARA. 943 76 00 57. 630 261 617

Ondo pasau
 jaixetan!



eusko
 alkartasuna

**Pentekoste
 jai zoriontsuak
 guztioi!**

Barrenkalea 18 Bergara 943 76 26 81



eusko
 alkartasuna

KONTZERTUA

GOLDEN APPLE QUARTET ETA BERGARAKO ORKESTRA SINFONIKOA

Sagararak orkestra erara, hori mokadu gozoa!

Golden Apple Quartet taldeak eta Bergarako Orkestrak emanaldi aparta egingo dute gaur

JULEN IRIONDO

Ikuskizun paregabea izango da gaur, egubakoitza, Pazkoe-tako lehen egunean: laukoaren ahots bikainak eta orkestraren doinuak, dena umorez zipriztinduta.

Zer kontzertu on bat baino hoberik Pazkoei ekiteko? Bada, aurten ere emanaldi bikain batekin hasiko dira Bergarako jaiak. Gaur, hilak 17, gaueko 22.30ean, Golden Apple Quartet laukoak, Bergarako Orkestra Sinfonikoa lagun, ikuski-

zun aparta eskainiko du Udal Pilotalekuan.

Con cierto estilo Golden ikuskizunak ahots eta orkestazioarendako egindako 21 abesti izango ditu. Guztiak izango dira kantu ezagunak, baina hori bai, betiere ikuskizunaren ize-nak dioen moduan, laukoaren ukitu bereziarekin.

Ukitu horiek agerian geratuko dira abestien letretan, originalak moldatu eta umore puntu bat eransteko zaleak dira eta Golden Apple Quartet taldekoak. Baina ez bakarrik letrek, doinuek ere *Golden* kutsu nabaria izango dute.

Ikuskizunak estilo askotariko abestiak tartekatuko



BERRIGARA

Gaurko ikuskizun bera Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin egina du Golden Apple Quartet taldeak.

'Con cierto estilo Golden' ikuskizunak umore handia eta estilo askotariko 21 abesti izango ditu

ditu, eta abesti beraren barnean ere askotariko estiloak konbinatuko ditu zenbaitetan laukoak. Euskal kantuek ere izango dute parte, bai eta abesti latinoek, *Big Band* amerikarrak eta jazz doinuek ere; Inaki Salvadorren jazz laukoteak ere hartuko du parte saioan.

Hain zuzen ere, gaurko emanaldiaren berezitasunak direla eta, Bergarako Orkestra Sinfonikoko musikariek ahalegin berezia egin behar izan dute kontzertua prestatzeko. Horrela, urte hasieratik hona, hogeitaz entsegu orokor inguru egin dituzte; laukoarekin

batera atzo eta herenegun ziren entseatzekoak.

Baina Bergarako Orkestraren zuzendari Alfredo González Chirlaqueren hitzetan, egindako entsegu kopurua baino gehiago, garrantzitsuagoa da "musikariek egin behar izan duten ahalegin pertsonal handia". Izan ere, "lan horiek orkestra profesional batendako idatziak daude eta ordu asko sartzea eskatzen dute".

ANTZERAKO ESPERIENTZIAK
Dena dela, ez da izango Bergarako Orkestraren gisa

Udal Pilotalekuan

**Egubakoitza
22:30**

Aurrez erosi ezean, sarrerak leihatilan ere izango dira salgai 14 euroren truke.

horretako lehen esperientzia -Benito Lertxundiarekin ere eman zuten kontzertua-, ezta Golden Apple Quartet taldearena ere.

Gaur gauean Bergarako Orkestrarekin eskainiko duten ikuskizun bera Euskadikoarekin egin zuten lehenago. Orduko hura zuzendu zuen zuzendari bera izango du gaurko emanaldiak ere, Enrike Ugarte tolosarra, hain zuzen ere. Enrike Ugartek eta Carlos Puig kataluniarrak egin zituzten *Con Cierta estilo* Golden ikuskizunerako doinuen moldaketak.

Hortaz, zuzendari bera; ez, ordea, orkestra. Alfredo González Chirlaqueren hitzetan, Golden Apple Quartet jende profesionalarekin lan egiten ohituta egonda, ez zekiten orkestra amateur batekin abestea proposatuta zelan erantzun zuten. "Baina ez zen arazorik egon. Bazuten orkestraren berri. Bazekiten Benito Lertxundiarekin ere kontzertu bat eman genuela, orduan ere Enrike Ugartek zuzenduta, eta ez zuten inolako eragozpenik jarri".

ERLOJUDENDA

Jai zoriontsuak igarò ditzazuela!

AINH A



Boni Laskurain 2. Tel. 943 76 47 40

BITXITEGIA

HARATEGIA



Jai zoriontsuak opa dizkizuegu bezero guztioi eta mila esker eman diguzuen konfiantzagatik!



Komenio kalea, 2. Bergara. 943 76 10 72

UMEAK

BARRAKAK ETA JOLASPARKEA UMEEN GOZAMENERAKO

Astelehena, umeendako prestatutako egun berezia

Astelehenean, barraketan prezio bereziak izango dituzte eta jolasparkea jarriko dute egun osorako

MONIKA BELASTEGI

Jai egitarauak txikiendako egun berezia ere badu: astelehena, hain justu ere. Barrakak merkeago izango dituzte eta jolasparkea ere egun horretan jarriko dute.

Jaietan umeek zerbaitekin gozaten badute, hori barrakak dira. Aurten ere, azken urteetan moduan, Poligonoan jarriko dute barrakak gunea. Auto-txo-keak, Igela, Beldurraren Trena, gozoki saltzaileak, tonbolak... Denetik egongo da: hamabi barraka, taberna bat, bi txurro-denda, eta tonbola eta tiro postuak, berriz, bederatzi. Orduko batzuk pasatzeko aukera ederra, hortaz, Poligonoko barrakak guneak jaietan eskainiko diguna.

Astelehena umeendako egun berezia izanik, barrakak merkeago izango dituzte. Egundik normalean 1,20 euro balioko du barraketako bira bakoitzak; aste-



Aurten, hamabi barraka egongo dira Poligonoan, neska-mutikoei primeran pasatzeko.

ARTXIBOA

lehenen, berriz, 0,60 euro. Horrez gain, jaiak amaitu eta hurrengo egunean ere, hau da, eguaztenean, barraketako bira bakoitzak 0,60 euro balioko du.

JOLASPARKEA

Barrakaz gain, jolasparkea ere izango dute umeek jolasteko astelehenean. Ipintza II Institutuko patioan jarriko dute eta goizez eta arratsaldean egongo da zabalik: goizetik, 11:30etik 14:00etara, eta arratsaldean, 17:00etatik 20:00etara. Jolasparke horretan hainbat jolas egongo dira, kart autoak eta gaztelu puzgarriak, besteak beste.

Ez da hori bukatzen, baina, umeendako antolatu dituzten ekitaldien sortaz: zezen-plazan jolasteko aukera ere izango dute astelehenean; izan ere, umeendako jolasak antolatu dituzte zezen-plazan. Hantxe, pottokak, txekor txikiak eta beste hainbat animaliarekin jolasean egiteko aukera izango dute txiki-txoenek. Eta hori guztia, gainera, Los Incansables txarangak alaituta.

Barrakak prezioa 1,20 euro izango da, baina astelehenean, merkeagoa izango da bira bakoitza: 0,60 euro

Jolasparkea Ipintza II-ko patioan jarriko dute eta 11:30etik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik

argazkilariak

JAI ZORIONTSUAK IZAN DITZAZUELA BERGARRAK GUZTIOK!

Barrenkalea 35
Tel. eta faxa: 943 76 58 05

argazkilariak



Estella ortopedia

Javier Estella, ortopedia teknikari tituluduna

OSAKIDETZAREKIN ETA LAGUN AROREKIN HITZARTUA


Matxiategi 5, BERGARA. Telefonoa: 943 76 19 63

- Etxerako laguntza teknikoa
- Kirol Ortopedia • Oinetakoak
- Neurria eginiko plantillak



Mastektomietan... aukera zabala

RPS 421/97



IRURAK MARGOAK

DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua

Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984

Faxa: 943 76 09 32

BERGARA

Kafea-Pentsioa



Logelak



Kafetegia

EGUNERO GOIZEKO 7etatik ZABALIK

Bidekurutzeta 34, BERGARA 943 76 47 23

Ondo pasau Pazkuak!

ELUSU ERAIKUNTZAK



- Era guztietako eraikuntzak
- Erreformak
 - Teilatuak
 - Sukaldeak
 - Bainuak
 - Fatxadak

Baserri eta jauretxeen
erreformetan
eta txaleten eraikuntzan
espezializatuta gaude



Ondo pasau denok!

Arruriaga 5
943 76 45 50 Faxa: 943 76 51 45



Ariznoa HOTELA

Instalakuntza moderno eta guztiz erosoekin,
gure bezeroek merezi duten
kalitatezko zerbitzua eskainiz.

Telesforo Aranzadi, 3
Tel. 943 761 846 - 943 761 847
Faxa: 943 761 848
20570 BERGARA - Gipuzkoa

ELKARRIZKETA MIREN ERRASTI JARDUNeko PEGATINA LEHIAKETAKO IRABAZLEA

“Badago jendea, euskaraz jakin arren, erabiltzeak lotsa ematen diona”

Miren Errasti.
16 urte, bergarra.
Pegatina Lehiaketako lelo irabazlea:

‘Lotsarik gabe, izan euskararen jabe’

JULEN IRIONDO

Pegatina Lehiaketa-ko epaimahaiak Miren Errastiren leloari iritzi dio egokien, aurkeztutako 153 esaldien artean. Hortaz, Jardunek aterako dituen 5.000 pegatinetan hau irakurriko da: *Lotsarik gabe, izan euskararen jabe.*

Zelan bururatu zitzaizun esaldi hori?

Autobusaren zain ilaran nengoen lagunekin. Pegatinarako leloa asmatu eta kutxatxora botatzeko epea amaitzear zegoen. Lagun batek zerbait idaztea proposatu zidan eta animatu egin nintzen.

Zer adierazi nahi izan duzu lelo horrekin?

Oraindik ere jende askok egiten du gaztelaniaz kaleari. Guztiak animatu nahi nituzke euskaraz berba egitera.

Orduan, nori zuzenduta dago zure mezua?

Alde batetik, euskara

jakin eta erabiltzen ez dutenei, eta bestetik, jakin ez eta ikasten ez dutenei. Azken baten, euskara erabiltzen ez duten guztiendako da nire mezua.

Zer esango zenioke pegatina jarri eta gero euskaraz egiten ez duenari?

Pegatina gutxiago eramateko eta euskaraz berba gehiago egiteko. Garrantziatsuagoa da euskaraz berba egitea pegatina jartzea baino. Pegatina jartze soilaz ez da nahikoa.

Zure ustez, badago euskaraz jakin eta erabiltzeak lotsa ematen dion jenderik?

Bai, nire ustez, badago horrelako jendea. Oraindik badago euskaraz jakin eta, ondo ez dakiela uste iza-teagatik-edo, erabiltzen ez duen jendea.

Bergarako jaietan jendea euskaraz mintzatzen entzuten da?

Nire ustez, nahiko euskara gutxi entzuten da Bergarako jaietan; ez, behintzat, behar beste. Euskara gehiago entzun beharko litzateke.



“Euskaraz jakin eta erabiltzen ez dutenendako eta jakin ez eta ikasten ez dutenendako, guztiendako da nire mezua”

“Nire ustez, euskara nahiko gutxi entzuten da Bergarako jaietan; ez, behintzat, behar beste”

Zer sentituko duzu zure esaldia bergarar guztien bularretan ikustean?

Poz handia. Izugarriko ilusioa egingo dit jende guztia nik asmatutako leloa duen pegatina jarrita ikusteak.

Aurretik parte hartu izan duzu Pegatina Lehiaketan?

Bada, ez. Aurten hartu dut parte lehenengo aldiz. Alde horretatik ere nahiko zorte handia eduki dut.

Lehiaketa gustuko izango duzu, behin parte

hartu eta irabazita?

Bai, bai, oso gustuko. Berriro ere har liteke parte.

Zer egingo duzu saria-rekin (60 euro)?

Jaietan gastatuko dut, egongo da-eta non gastatu.

Zer duzu gustukoan jaietan?

Kalean egoten den giroa eta kontzertuak ditut gustukoan. Aurten, gainera, nahiko talde onak etorriko dira Bergarara jotzera; Betagarri, esate baterako.

Jaietan egiten duzuna eginda ere, euskaraz?

Bai, jakina. Bestela ere, euskaraz egiten dut beti.



ARATZ

ALBAITARI KLINIKA

Aratzek jai zoriontsuak opa dizkie bezero guztiei

Zurradero 6, behea

Telefona: 943 76 70 67 Mobila: 607 48 71 19

Iturkintza • Berogintza • Bainuak



Laskurain

Ondo pasatu jaietan!

Barrenkalea 35. Tel. 943 76 24 89

ERREKORTADOREAK BEDERATZI BIKOTE LEHIAN EUSKADIKO ERREKORTADOREEN TXAPELKETAN

Bergarako lau gazte bigantxen aurrean zapatuan

Iker Agirre, Unai Arana, David Maestre eta Mikel Uribesalgo, Errekortadoreen Txapelketan



ANDER GILENEA

Iazko Errekortadoreen Txapelketa oso ikusgarria gertatu zen.

EDU MENDIBIL

Hirugarren urtez, Euskadiko Errekortadoreen Txapelketa jokatu da Bergaran. Nafarroako, Iparraldeko eta Gipuzkoako 9 bikotek hartuko dute parte.

Zezenzaleak taldeak antolatutako txapelketa bikoteka jokatu da, eta herriko lau errekortadore plazaratu dira: Mikel Uribesalgo eta Unai Arana elkarrekin arituko dira, David Maestrek Valladolideko Emilio Modroño bere lehen-

gusuarekin hartuko du parte eta, azkenik, Iker Agirrek Arrasateko Blas Cruzekin osatuko du bikotea.

Esan bezala, bederatzi bikote izango dira lehian. Bergararez gain, Nafarroatik, Iparraldetik eta Tolosatik etorritako errekortadoreak ikusteko aukera egongo da. Tartean, iaz, San Ferminetan errekortarik onena egin zuen nafarra etorriko da Bergarara.

Bikote bakoitzari lau minutuko tarte emango diote zapatuko txapelketan: lehenbizikoan errekortateak egiteko aukera izango dute eta beste hiru minutuetan bigantxen adarretan uztaiak sartzen saia-

Bikote bakoitzari lau minutuko tarte emango diote: minutu bat errekortateak egiteko eta beste hiru adarretan uztaiak sartzeko

tuko dira. Bigantxak Mandibiako Jesus Estenagaren gañadutegikoak izango dira. Errekortadoreak 250 kilo inguruko bigantxen aurrean ibili beharko dira.

Joan den urteko txapelketan bergararrak bikain ibili ziren: Mikelek eta Unai irabazi zuten

uztaien proba eta Davidek egin zuen errekortarik artistikoena, epaimahaia- ren ustez. David Maestrek hiru urtez jarraian irabazi du Errekorte Onenaren saria Bergaran. Ander Muruamendiarazek, aldiz, zorte txarragoa izan zuen iaz: adarkada bat eman zion

bigantxa batek eta puntuak eman behar izan zizkioten izterrean. Sustoaren ondorioz, aurten ez dugu Ander zezen-plazan ikusiko.

Zapatuko Errekortadore Txapelketako bikote irabazleak 800 euro, garaikurra eta txapelak eskuratuko ditu, bigarren bikote onenari trofeoa emango diote eta, azkenik, errekorte artistiko onena egiten duenari 200 euro eta trofeoa emango diote.

TOLOSAN ENTRENATZEN

Errekortadore bergararrak Tolosako San Juanetako

Zezen-plazan

Zapatua
18:00

Sarrera, 6 euro.
Hamalau urtetik beherakoendako, 3 euro.

Txapelketan ere egonda-koak dira. Tolosarrekin harreman estua daukate eta joan den maiatzaren leian han izan ziren, txapelketarako gertatzen. Davidek azaldu digunez, "Lasturtik ekarritako behi batzuekin ibili ginen. Bikotearen arteko elkar ulertzea ona izan behar da, eta txapelketaren aurretik saioen bat egitea ondo dator beti. Hori bai, sasoi onean egoteak berebiziko garrantzia dauka zezenaren aurrean jartzeko orduan. Kontuz ibili behar da, arriskua hor dagoelako. Kontuak kontu, gustura ibili ginen Tolosako entrenamenduan, eta ea zapatuan gauzak ondo ateratzen zaizkigun eta zaleek ikuskizun polita ikusten duten".

Horrelako txapelketan tentsioa handia delako Davidek: "Zezen-plazara irten aurreko minutuetan oso urduri egoten gara, baina behin zezena aurrean egonda, alde batera uzten ditugu nerbioak. Txikitatik zezenzaleak gara guztiok eta izugarri gozitzen dugu zezenaren aurrean. Zaila da hori azaltzea".

Etxebizitzen, etxabeheen eta garajeen eraikuntza

ORTUIBAR SA

PROMOZIOAK

Ibargarai 18 BERGARA 943 76 11 18

BILTOKI
ASPIZA S.L.

Elektrikako tresnak	Barrenkalea, 6	Tel.: 943 76 25 96
Opariak	Barrenkalea, 12	Tel.: 943 76 04 72
Dekorazioa	San Martin plaza	Tel.: 943 76 43 51
Sukaldeak eta bainuak	San Pedro plaza	Tel.: 943 76 34 00

Herritar eta bezero guztioi jai zoriontsuak opa dizkizuegu.

ZEZEN FESTA

ZEZENZALEAK TALDEAK ANTOLATZEN DUEN X. TXEKORKETA IZANGO DA

Gayo eta Tejedor toreatzaileak txekorketan

Nobedade gisa, Pedro Javier Ziordia burtzikari errioxarrak txekor bat txuliatuko du

Zezen-plazan

**Domeka
18:00**

Sarrerak, 12 eurotan salgai. 14 urtetik beherakoendako, 6 euro.

EDU MENDIBIL

Salamancako Eduardo Gayo eta Javier Tejedor nobilleroek López Chávez gaudutegiko bina txekor txuliatuko dituzte. Nobedadea Pedro Javier Ziordia burtzikaria izango da.



Curro Reyes nobillero ekuadortarra txekorra akabatu aurretik, iazko zezenketan.

EDU MENDIBIL

Aurten hamar urte beteko dira Zezenzaleak taldeak Pazkoetako txekorketa antolatzen hasi zela, eta ospatzeko, ikuskizun berezia antolatu dute domekarako. Patxi Uribesalgo Zezenzaleak taldeko kidearen esanetan, "urtero nobedaderen bat ekartzen saiatzen gara, eta zaldiak zezenplazan ere oso ikusgarriak direnez, Pedro Javier Ziordia burtzikaria (errejoneadorea) etorriko da aurten. Espero dugu zaleek ikuskizunarekin gozatzea, zaldiekin toreatzea ez da-eta oso ohikoa gurean".

Domekan, Salamancako Eduardo Gayok eta Javier Tejedorrek bina txekor txuliatuko dituzte, eta

Pedro Javier Ziordiak, zaldi gainean, beste bat toreatuko du. Ekaitz Rodríguez errenteriarra izango da ordezkoa. Iaz bezala, baliteke ordezkoko soberako txekorra toreatzea, Rodrí-

"Gayo kapotearekin artista da. Tejedor indarrezko toreatzailea, ausarta zezenaren aurrean"
PATXI URIBESALGO

guez-en jarraitzaile asko etortzea espero dute-eta.

Zezenzaleak taldekoak Ledesman (Salamanca) egon ziren martxoan, zezenak aukeratzen. Han, Gayo eta Tejedor toreatzen ikus-

teko aukera izan zuten. Uribesalgoren ustez, "Gayok Debako jaietan toreatu zuen iaz, oso lan ona egin zuen. Esperientzia handia dauka eta kapotearekin artista da. Aurten, pikadoreekin debuta egingo du. Tejedor, berriz, indarrezko toreatzailea da, ausarta zezenaren aurrean".

TOREATZAILEEN GUSTUKO ZEZENAK

Laugarren urtez, Salamancako López Chávez-en txekorrek ekarriko dituzte Zezenzaleak taldekoek. Uribesalgoren hitzetan, "toreatzeko oso zezen onak dira, *jandilla* kastakoak, toreatzaileen gustukoak".

Domekako txekorketa Mutrikuko Musika Bandak eta Elgoibarko dultzaineroek alaituko dute. Sarrerak salgai daude Ganbara, Zer Nai eta Canalejas tabernetan eta kultura etxean.

Bestalde, entzierroak izango dira domekan, astelehenean eta martitzenean, 09:00etan, eta enbolatuak domeka goizean eta astelehenean eta martitzenean, goizez eta arratsaldez.



"la Caixa"

Fraiskozuri plaza 7. Telefonoa: 943 76 41 16
BERGARA

Gracian

Usaindegia - Mertzeria

Bidekurutzeta 6 Tf. 943 76 10 25



Jai
zoriontsuak
denoi!!

DANTZA

BERGARAKO HIRU BIKOTEK HARTUKO DUTE PARTE TXAPELKETAN

Dantza sueltoko gazterik onenak lehian domekan

Hogeita bosgarren aldiz jokatu dute aurten hamabost urtez azpikoendako Dantza Suelto Txapelketa

San Martin plazan

Domeka
11:30 eta 17:30

Goizean,
kanporaketak.

Arratsaldean, finala.

AINTZANE IRIZAR

Goizean jokatu dituzte kanporaketak; arratsaldeko bost eta erdietatik aurrera, berriz, finala. Parte hartzaile gehienak gipuzkoarrek dira, horietatik hiru, bergararrak.

Goizeko hamaika eta erdietan dute hitzordua dantzariak eta dantza sueltorekin zaleek. San Martin plazan izango da saioa, ohi bezala.

Astelehenean, erredakzioa ixterako orduan, 15 bikotek bakarrik zuten izena emanda. Dena dela, izena emateko epea egun batzuk luzatzea erabaki zuten; goizean jokatu den kanporaketatik arratsaldeko finalera zenbat bikote sailkatuko diren erabakitzeke zuten oraindik.

Izena eman duten 15 bikotetatik, hiru Bergarakoak dira eta bat Elgetakoa; parte hartzaile bat izan ezik, gainerako guztiak gipuzkoarrek dira.



ARTXIBOA

Alex Torrek eta Josune Fernándezek irabazi dute azken hiru urteetan.

Bikote bakoitzak Arin-arina eta Fandangoa dantzatu beharko ditu; Bergarako txistulariek lagunduta dantzatu dute Fandangoa; Arin-arina, berriz, Xabier Zabale eta Aitor Alkorta tri-

kitilarien laguntzarekin dantza egin beharko dute.

Bikote irabazleak 145 euroko saria eta trofeoa eramango ditu. Bigarrenak 130 euroko saria eta hirugarrenak 120 eurokoa.


Hogeita lau urte hauetako bikote txapeldunak

1978:	Xabier Mujika-Aintzane Arana / Bergara	1991:	Kimetz Larrañaga-Eneritz Epelde / Azkoitia
1979:	Edu Muruamendiaraz-Jaione Arana / Bergara	1992:	Jon Aranburu-Maite Lazkano / Bergara
1980:	Iñaki Burunza-Maite Lete / Soraluze	1993:	Jon Aranburu-Maite Lazkano / Bergara
1981:	Iñaki Burunza-Maite Lete / Soraluze	1994:	Jon Aranburu-Maite Lazkano / Bergara
1982:	Laskurain anai-arrebak / Osintxu	1995:	Jon Ander eta Edurne Azpitarte anai-arrebak / Azkoitia
1983:	Aitzol Ena-Amaia Agirre / Bergara	1996:	Xabier Azurmendi-Janire Urbieto / Zegama eta Bergara
1984:	Aitzol Ena-Amaia Agirre / Bergara	1997:	Xabier Azurmendi-Janire Urbieto / Zegama eta Bergara
1985:	Aitzol Ena-Amaia Agirre / Bergara	1998:	Xabier Azurmendi-Janire Urbieto / Zegama eta Bergara
1986:	Aitzol Ena-Amaia Agirre / Bergara	1999:	Alex Torre-Josune Fernández / Bergara
1987:	Aitzol Ena-Amaia Agirre / Bergara	2000:	Alex Torre-Josune Fernández / Bergara
1988:	Iban Agote-Iraultza Garmendia / Lezo	2001:	Alex Torre eta Josune Fernández / Bergara
1989:	Jon Aranburu-Maite Lazkano / Bergara		
1990:	Kimetz Larrañaga-Eneritz Epelde / Azkoitia		

Epaile lanetan, berriz, Euskal Dantzarien Biltzarreko bost kide arituko dira domekan; horietako batek erabaki beharko du jantzi dotoreena zein bikotek jantzi duen.

TXAPEL GEHIENAK, BERGARARA
Esan bezala, 25. aldian izango da aurtengoa. Horra hor (goian), azkeneko 24 urte hauetako irabazleek zerrenda. Nabarmentzekoa da hogeita lautik, heme-

zortzi txapel geratu direla Bergaran bertan. Hainbat bikote bergararrek, gainera, behin baino gehiagotan jantzi dute Euskal Herriko dantzari onenen txapel hori.



iBARRALDE

Administrazio Zerbitzuak S.L.


ELKARGOKIDE ZENB.: 25.068

Ondo ibili jaietan!

Zerga, lan eta kontabilitate zerbitzuak
Finken administrazioa
Zerbitzu juridikoak

HELBIDE BERRIA: Ibargarai 30

Tel.: 943 76 52 88. Faxa: 943 76 25 64



ONENA

Tindategia

Ondo pasau jaiak!

Barrenkalea 29 bergara 943 76 57 25

ERAKUSKETA GURE ARBASOEK ERABILTZEN ZITUZTEN JANTZIAK

Antzinako euskal jantziak ikusgai Udalean

Hogei jantzi inguruk osatzen dute erakusketa; gizonezko zein emakumezkoenak.

MONIKA BELASTEGI

XIX. mende amaiera eta XX. mende hasierako arropen ereduetatik sortutako jantziak dira. Erakusketa Abarkak eta Moises Azpiazu dantza taldeak antolatu dute.

hobea egongo da Pazkoetan. Izan ere, osoko bilkuren aretoan, XIX. mende amaierako eta XX. mende hasierako hainbat jantzirekin egindako erakusketa dago ikusgai. Hogeiren bat jantzi daude ikusgai, eta garai hartan zelan janzten ziren argitzeko aukera eskaintzen du erakusketak.

Euskal Dantzarien Biltzarrak egindako lanaren emaitza da erakusketa hori. Garai hartako argazkiak aztertu ditu, eta hainbat familiak gordeta zituzten garai hartako jantziak ere bai. Gero, patrioiak atera, eta lehengo jantzi haietan oinarritutako berriak egin dituzte.

Gure arbasoak zelan janzten ziren? Zein arropa erabiltzen zuten? Emakumezkoek, esaterako, gaur egun horren hedatua dagoen tantodun soineko iluna janzten ote zuten?

Zalantza horiek guztiak argitzeko aukera ezin



EUSKAL DANTZARIEN BILTZARRA

Argazkikoak bezalako jantziak egongo dira ikusgai osoko bilkuren aretoko erakusketan.

Gure arbasoak XIX. mende amaieran eta XX. mende hasieran zelan janzten ziren ikusteko ematen du

KOLORE ASKO ETA ESTANPATU UGARI

Emakumezko eta gizonezkoen jantziak daude. Eta gure asaba arropa kontuetan oso ausartak zirela argi uzten du: oso kolore

Osoko bilkuren aretoa

Egubakoitzetik martitzenera

Moises Azpiazu dantza taldearen argazkiak ere egongo dira

bizirik erabiltzen zituzten jantzietan, eta horrez gainera, estanpatuzaleak ere baziren. Nahasketak egiteko orduan, loreak, marrak, karratuak... konbinatzen zituzten euren jantzietan.

Erakusketa hori maiatzaren 10ean ireki zuten, eta Pazkoak amaitu arte egongo da zabalik. Moises Azpiazu dantza taldeak eta Abarkak taldeak ekarri dute herrira. Arrazoia da hamabost urtetik beherako Euskadiko Dantza Txapelketak hogeita bost urte egingo dituela, eta urteurrena ospatzeko ekitaldien artean, erakusketa antolatu dute. Maiatzaren 11n egindako Jalgi Hadi Dantzara erromeria ere hor kokatzen da.

MOISES AZPIAZU TALDEAREN 25 URTEAK, ARGAZKITAN

Horrez guztiaz gainera, antzinako euskal jantzien erakusketan bertan, Moises Azpiazu dantza taldeak hogeita bost urte haueetan izan dituen irakasle eta ikasleen gainera argazkiak ere egongo dira ikusgai hainbat paneletan banatuta.



Zure garajeko urrutirako agente tresna originalak eta homologatuak, Jubarren eskuragai



JUBAR
ATEAK, S.L.

Tf.: 943 79 10 20 • Faxe: 943 79 08 17 Kataide industrialdea 18. 110 Postakutxa • ARRASATE
Posta elektronikoa: jubarateak@euskalnet.net

OPEL

GIAUTO Bergara

Lehengo Talleres Ola, etorkizunari begira

Olabarrena z/g. BERGARA 943 76 33 44 / 46

JAI ZORIONTSUAK GUZTIOI!

KARTELAK

LEHIAKETA

Vannessa Pedrazak irabazi du Kartel Lehiaketa

Erakusketa, San Martin plazan

Martitzena
11:00-20:00

Lehiaketara aurkeztutako lan guztiak egongo dira ikusgai

Bingen de Pedro epaimahaikidearen ustez, aurkeztutako lanen maila aurreko urteetako baino hobea izan da


JULEN IRIONDO

Lehiaketara aurkeztutako hamaika lanen artean, Vannessa Pedrazarena hautatu du epaimahaiak. Guztiak, garailearena eta beste hamarrak, egongo dira ikusgai martitzenean plazan.

Vannessa Pedrazaren lanari eman diote aurtengo jaietako Kartel Lehiaketako lehen saria. Epaimahaiak gazte bergarar horren lana hautatu du aurkeztutakoen artean.

Denetara, hamaika lan zituzten aukeran epaimahaikideek, "zenbaki polita", Rufina Olasagasti Kultura zinegotziaren ustez, "gutxiago ere aurkeztu izan dira-eta beste urte batzuetan".

Mailari dagokionez, "aurtengo kartelak, agian, aurreko urteetako baino kalitate handiagokoak dira", Bingen de Pedro margolariaren hitzetan. Bergarako artisten elkarreko (Beart) kide da Bin-



Hauek dira aurtengo Kartel Lehiaketara aurkeztutako hamaika lanak. Lerro hauen gainean duzuen da Vannessa Pedrazaren kartela, epaimahaiaren lehen saria irabazi duena.

gen de Pedro, eta aurreko urtean moduan, aurtengo ere jaietako Kartel Lehiaketako epaimahaikide izan da.

Goiko argazkietan ikus daitekeen moduan, egileetako askok antzerako teknikak hautatu dituzte euren lanak egiteko. Hala, lehiaketara aurkeztu-

tutako kartel gehienak ordenagailu bitartez moldatutako argazkiak dira irabazlearen lana hala-

kozea da-, nahiz eta, esaterako, margolanik ere aurkeztu duen baten batek.

Epaimahaiak jai giroa ondo islatzea eta alderdi tekniko hartu dituen kartelak sailkatzerako orduan, eta irizpide horiek jarraituta, Vannessa Pedrazaren lanari eman dio lehen saria.

Vannessak berak irabazi ditu lehen sari horri zegozkion 600 euroak. Bai-

na gainerako lanek ere izango dute euren sari txoa. Izan ere, lehiaketara aurkeztutako lan guztiak ikusgai egongo dira datorren martitzenean, hilaren 21ean, udaletxe arkupeetan. Kartelen erakusketa egun osoan egongo da ikusgai, 11:00etatik 20:00etara.

Lehiakide askok teknika bera erabili dute: ordenagailuz tratatutako argazkiak

Elgeta bidea, BERGARA
Posta kutxa 130
Tel.: 34 943 764 844
Faxa: 34 943 765 047
posta elektronikoa:
ttt@grupottt.com
webgunea:
www.grupottt.com

Tratamientos Térmicos TTT SA

GRUPO
TTT

Zorionak guztioi!

Geyser
GAS TECH

San Juan auzoa z/g 151 Posta kodea
BERGARA • 943 76 90 04

**PROFESIONALITASUNA,
GAS BEROGAILUEN
EKOIZPEGINTZAN**

1997ko irailean, Bergaran Geyser Gastech
Teknologi eta Ekoizpen Zentrua sortu zen.
Gure bezero, lankide eta eskualde
honetako jende oro agurtu nahi ditugu.





Zure sukaldea.

Ibargarai 36-38 BERGARA. Tel./faxes: 943 76 70 58



**Bergarako
Udalak jai
zorientsuak
opa dizkizue!**



BERGARAKO UDALA

TELAETXE S.A.


Oihalen neurketatik etxean
ipintzera arte dena gure esku

Fabrikako preziotan

Elgeta bidea,
gasolindegitik
300 metrora
• BERGARA •

Tel.: 943 76 39 40 / 41
Asteleneetik
larunbatera
10:00etatik 13:00etara
eta
16:00etatik 20:00etara
zabalik

- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolekzio berria ikusgai eta orain **ALFONBRAK**



LAGUN

ARROZTEGIA

Mekolalde 57. 20570 BERGARA
943 76 08 10 (Tallerrekoa)
943 77 02 43 (Etxekoa)
659 774 083



Ateak

Leihoak

Sukaldeko armairuak

Horma armairuak

Era guztietako arotz lanak



ROCK ERO

GUZTIRA 20 MUSIKA TALDE IZANGO DITUGU PAZKOETAN

Rock eskaintza zabala txosna gunean, Bideberrin

Egubakoitzean, zapatuan eta astelehenean, egunean lau rock talde arituko dira Bideberrin, txosna gunean; talde holandarrak, amerikarrak, galiziarak, euskaldunak eta baita Bergarako lau talde ere. / AINTZANE IRIZAR

Gaztetxean eta Bideberrin

Egubakoitzetik martitzenera

Estilo guztietako musika doan.

17

egubakoitza



The Meows kataluniarrak beste lau talderekin batera eskainiko digute kontzertua egubakoitzean.

Egubakoitz gauerdian hasiko dituzte Bideberriko kontzertuak honako lau talderen emanaldiarekin.

THE MEOWS

The Meows talde kataluniarreko kideei ez zaie erraza egiten euren musika estiloa definitzea, baina zela-bait definitzekotan, punk-rockaren eta powerpoparen artean kokatzen dute. Baina musika aldizkariak ere definitzen dituzte: "hiruroigeigarren hamarkadako punka, power-popa, talde australiarrak, garage eta punk-rockaren eragina" nabari ei zaie.

LA SECTA

Santurtziarrak ditugu. 1990. hamarkadan sortutako taldea. Urte batzutan geldu egon ostean, indartsu taularatu dira berriro.

Rock&rolla eta punk-rockaren artean sar genezake euren musika. Gure artean oihartzun handirik lortu ez duten arren, single asko argitaratu dituzte kanpoan.

GLOOMY HOUSE

Galiziatik datoz Gloomy House taldekoak. Ez Vigotik, hainbat rock eta pop talde galiziar ospetsuren sorgunetik. Hauek Pontevedra

drakoak dira, Vigotik gertukoak. Geroago eta eza-gunagoak dira lurralde haietan, batez ere 1996an, III. Revoltallo de Música Emergente saria jaso zute-

netik. Ordutik, baina, musika estiloz aldatu dute. Orain, power popa egiten dute, hau da, poparen melodia eta rock and rollaren azkartasuna uztartzen dituen iraupen laburreko kanta sutsuak. Bai Gloomy House taldekoek eurek eta baita hauen musika entzuteko aukera izan dutenek, DM3, Replacements eta Young Fresh Fellows bezalako taldeen eragina onartzen dute. Hala bada, zorteko izan gaitzke pop indartsuaren zaleok. Bideberrin ikusi eta dantzatuko dugu elkar.

SUPERCOOLS

Bergarako talde honek punk-rock musika jorratzen du, eta aukera polita izango dute egubakoitz gauean Bideberrin, aurretik aipatutako taldeekin aritzeko. Hala ere, ez da Bideberrin aritzen diren lehen aldia izango. Aitor Lagoma (ahotsa), Gaizka Tabuenca (gitarra), Iker Narváez (bateria) eta Alex Abajo (baxua) bergararrekin osatzen dute Supercools.

PASCUAL

TELEKOMUNIKAZIOAK

Arrasate 4. 20095 Donostia Tel. 943 42 04 28 eta Madril hiribidea 13.



Liderrak
telefonía mobilean



Banataile ofiziala




lbargarai 5 BERGARA
943 77 70 14 Faxa: 943 77 70 16
bergara@pascualalzuri.com

Nereia

Lentzeria • Kortse-denda • Bainujantziak

Simon Arrieta plaza 1 Tf. 943 76 19 52

Ondo pasau
jaixak!



ROCK ERO

18
zapatua

The Elebators talde bergararrak rock munduko hiru talde handirekin beteko du Bideberriko rock kontzertuen zapatuko egitaraua: Rock-A-Hulas, The Mooney Suzuki eta The Nitwitz taldeekin, hain zuzen ere. 23:30ean hasiko da kontzertua.

THE MOONEY SUZUKI

Ameriketako Estatu Batuetatik datorkigu The Mooney Suzuki laukotea, New Yorketik, hain zuzen. Punk-funk estiloko kokatzen dute taldekideek euren musika. "Rockaren historiak eman duen onenaren lagin perfektua" bezala definitzen dute amerikarren musika, aldizkari espezialdu baten. Detroiteko soul-rocka, Rolling Stones, Animals eta The Who taldeen erritmoa eta bluesa, eta Staxen amorrua batzen dituen musika egiten dutela ere irakurri dugu. Baita garage-rock egiten dutela ere. Onena izango da zapatu gauean txosna gunera joan eta bertatik bertara entzutea amerikarren emanaldia.

THE NITWITZ

Holandatik datozkigu The Nitwitz. 1978. urtean sortu zuten talde holandar hau, eta gogor sartu ziren, gainera, punk munduan. Hitzak, gogorrak; soinu eta erritmo biziak, azkarrak. 1982an desegin zuten taldea, eta 1996an elkartu ziren berriro. Punk holandarraren gaineko liburu bat argitaratu behar zutela eta elkartu ziren taldekideak. Hasierako punk eta hardcorea, rock&rollarekin, garage-arekin eta motown soul-arekin nahasten duen taldea ikusteko aukera izango dugu zapatuan; ekainean grabatzen hasiko diren diskoaren aurrerapena ere ekarriko digu The Nitwitz talde holandarrak.

Honako boskote hau izango dugu Bideberriko taula gainean: Mike Dogshit (ahotsa), Tony Slug (gitarra), Benito Gasolini (gitarra), Dick Ginger (baxua) eta Steven Niewendijk (bateria).

ROCK-A-HULAS

Cedeirako (Galizia) taldea dugu Rock-A-Hulas. Honako boskote honek osatzen du A Coruña talde rock&rolleroa: Twisted Fingers (farfisa organoa), Joe Terremoto (baxua), Giovanni Kilsminster (bateria), Rockin' Balboa (gitarra) eta Roy The Boy (gitarra). Musika talde bat bai, baina lagun talde bat dira gehiago Rock-A-Hulas; elkartu eta rock&rolla jotzen duen lagun talde bat. Zuzenean euren musikaz gozatu dutenek diote "dibertigarriak" direla eskaintzen dituzten kontzertuak. Kontzertu horietan erakusten dute zelakoa den euren musika: rock&rolla, baina punk, garage, surf edota frat estiloen ukitu batekin.

Zapatu gauean, beraz, rock&rollaz gozatzeko eta une dibertigarri bat pasatzeko aukera dugu galiziar hauekin.

THE ELEBATORS

Ez da akatsa; lehen *v*-rekin idazten zuten arren, orain *b*-rekin idazten dute. Musikarekiko zaletasunak bulzatuta, duela zazpi urte sortu zuten Bergarako tal-



The Elebators talde bergararra.

de hau. Honako hirukote honek osatzen du The Elebators: Mikel (ahotsa eta gitarra), Aitor (baxua) eta Kepa (bateria). Rocka jorrazten dute, eta gustoko dituzten taldeen artean ditugu ondorengo hauek: The Stoges, T-rex, Scientists...

Aipatzekoa da, bestalde,

urtarrilean grabatu zutela lehendabiziko maketa Aitzol Mujikaren laguntzarekin, eta duela egun gutxi argitaratu dute. Badakizue, beraz, astelehenean Bideberri entzun eta gero, gustatuz gero, herriko hainbat tabernatan topatuko duzue maketa hori salgai.



Rock-A-Hulas galiziarrekin rock&rollaz gozatzeko aukera izango dugu.

ELKAR fotokopiak

Arruriaga 1, behea. Tf. eta faxa 943 76 58 16.

Plastifikazioak DIN A4/A3 eta posterrak

Kautxozko zigiluak

Fax zerbitzua

Fotokopia digitalak zuri-beltzean CDarekin

Enkuadernazioak

KOLORETAKO FOTOKOPIAK LASERREAN

Eskolarako materiala

PLANOEN KOPIAK, ESKANEATZEA ETA PLOTEATZEA

ESKANEATZEA KOLORETAN MAKINA DIGITAL BIDEZ



Zure aukera musika eta liburutan.

Ibargarai, 12 - 20570 BERGARA
Tel.: 943 764050 Fax: 943 762352
bergara@megadenda.com
<http://www.megadenda.com>

ROCK ERO

20 astelehena

Astelehenean euskal musika taldeen eguna izango da txosna gunean. Uko eta Basque Country bergararren, Betagarri gasteiztarren eta Kuraia taldeen emanaldia ikusi eta entzuteko aukera izango dugu 23:00etatik aurrera.

BETAGARRI

Badira hamar bat urte talde hau sortu zutenetik. Lagun artean eta inolako seriotasun barik sortutako taldea dugu, baina denborarekin bere lekua egin eta hamar urte luzez musika munduan jarraitu duena. Lau disko dituzte merkaturatuta: *Betagarri*, *Arren erro zaharra*, *80/00* eta *Freaky Festa*, hain zuzen ere.

Ska musika ardatz hartuta, beste musika moten eragina ere nabaria da Betagarrikoek egiten duten festa giroko kantu dantzagarrietan. Reggae, rap edota funkaren eragina, esaterako, nabaria da egiten dituzten kantu gehienetan.

00/80 diskoan, berriz, euskal musikako 20 talde-



GALDER IZAGIRRE

Kuraia eta beste hiru euskal talde arituko zaizkigu astelehenean.

ri omenaldia egiteko diskoa izanik, hainbat bertso egin zituzten, eta hori ere ez dute batere gaizki egiten gasteiztar hauek.

Ska, rap edo reggae, guztiak ere dantzarako erritmo ezin egokiagoak. Astelehen gaua, beraz, dantzarako gau aproposa.

KURAI

Dut taldeko kide izandako Joseba eta Galder, Mikel Anestesia eta Corazón del Sapoko Fernando; horietan osatzen dute Kuraia taldea. Punk rock estilotik gertuago dago talde hau, baina iraganaren arrastoa nabarmena da euren musikan, eta zela ez, heavyaren

kutsua nabari zaie eskaintzen dizkiguten doinuei, baita hardcorearen ukitu bat ere. Abesti melodikoak, baina era berean, erritmo gogorrekoak eta gitarra aberatsez jantzitakoak eskainiko dizkigute astelehen gauean Bideberriko txosna gunera inguratzen garenoi.

BASQUE COUNTRY

Euskal Herrian country musika egiten duen talde bakarrenetakoa izango da ziurrenik. Dwight Yoakam estatubatuarraren musikarekin liluraturik, duela lau bat urte osatu zuten taldea. Iñigo Gallastegi "Poti" bateriajolea izan genuen

taldearen sortzailetako bat. Honako hauek dira taldekideak gaur egun: Jesus Martínez (kitarra eta ahotsa), Asier Elorza (kitarra eta ahotsa), Nagore Sanz (baxua eta ahotsa), Edu Txurruka (bibolina), Gabi Agirregomezkorta (kitarra) eta Ander Garitano (bateria). Eguazteneko elkartzeko Elgoibarren, entseguetarako. Astelehenean Bideberri eskainiko duten kontzerturako hogeitabi abesti prestatu dituzte, tartean Yoakam bera, Alan Jackson, Buck Owens, Johnny Cash eta Brad Paisley country abeslarien bertsoak. Asier Elorzak konposatutako "Chicago" kanta ere joko dute txosnetako kontzertuan. Nashville aldeko doinuek Bergaran.

UKO

Pare bat urte dira Bergarako gazte koadrila batek Uko musika taldea sortu zutela. Metala jorratzen dute, batik bat. Honako bost lagunok osatzen dute Uko: Aimar (baxua), Mikel (gitarra), Iban (gitarra), Ibon (bateria) eta Mikel (ahotsa). Aurten izango da Bideberriko txosna gunean parte hartzen duten lehen aldian. Herriari egiten duten musika erakusteko aukera paregabea dute asteleheneko. Iazko Pazkoetan ere eman zuten kontzertua; gaztetxean eskaini zuten kontzertua beste talde batzuekin batera.

Gaztetxean ere hainbat kontzertu

EGUBAKOITZA, 17

Musika afrikarra eta hip-hop festa izango dugu egubakoitz gauean, 23:00etatik aurrera Bergarako gaztetxean. Aritz Sound System eta Daddy Jeff arituko zaizkigu erritmo afrikarrak gureganatuz. Daddy Jeff Selektah Kolektiboko abeslaria dugu. Entzuteko bai, baina batez ere dantzarako gaua, dantza egitera joateko kontzertua izango dugu egubakoitz gauekoa.

ZAPATUA, 18

Bergarar musikarien txanda izango da zapatu arratsaldean, 19:00etan, hain zuzen ere, gaztetxean. Alde batetik, Fly Shit taldearen emanaldia izango dugu. Hardcore punk-rock estiloa lantzen du honako boskote honek: Igor Setien (ahotsa), Txisko (gitarra), Ander Elortza (gitarra), Jon Ostolaza (bateria) eta Eloy Galán (baxua) bergararrek osatzen dute taldea. Fly Shit taldearekin batera, Dog Bite bergarar boskotea arituko zaigu: Miguel (gitarra), Gaizka (gitarra), Txarli (baxua), Dubi (bateria) eta Jon (ahotsa). Duela urtebete inguru sortu zuten taldea eta hc-punk musika jorratzen dute. Urtebete honetan hainbat kontzertu eskaini dituzte Bizkaian, Aretxabaletako gaztetxean eta baita Bergarako gaztetxean ere.

DOMEKA, 19

Bi aukera ditugu domekan musikari dagokionez. Batetik, Bideberri, txosna batzordeak antolatuta, lau talderen kontzertua izango dugu 22:30etik aurrera: *Ataque 77* Argentinatik datorkigu eta punk musika entzuteko aukera eskainiko digu. Argentinako punk talde ezaguna dugu *Ataque 77*. Pam taldea Ermukoa dugu, lehengo Julio Kageta taldekoek osatutakoa. Bestetik, Bergarako bi talderen musikaz gozatzeko aukera izango dugu: *Goiko Rock* eta *Destrucción a la Nación* taldeena, hain justu. Bestetik, Dj festa izango dugu 23:00etan, gaztetxean.

MARTITZENA, 21

Jaietako azkeneko egunean ere izango dugu kontzertu bat gaztetxean. Bergarako Extorsión taldearen emanaldia izango dugu 22:30etik aurrera.

- Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
- Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!



ARRAÑAGA

A U T O E S K O L A

Ondo pasau jaixak!

Telefonoa: 943 76 16 63. BERGARA

TXOSNAK

BOST TXOSNA ETA EGITARAU ZABALA EGONGO DA BIDEBERRIN

Txosnen gunea, jaietarako aukera aparta

Bost txosna jarriko dituzte, eta, rock kontzertuez gain, hainbat ekitaldi egingo dituzte Bideberrin

MONIKA BELASTEGI

Azkeneko hiru urteetan moduan, Txosna batzordeak egitarau propioa antolatu du Bideberrin. Gainera, goizago itxiko dituzte txosnak, arratsaldeko giroa pizteko.

Bost txosna egongo dira Mendekoste jaietan: AEK-k, EHEK, Batasunak eta Presoen Lagunak taldeak txosna bana eta Txapa Irratiak eta gaztetxeko *Astindu* fantzineak elkarrekin jarriko dutena.

Txosna batzordeak jai-

tarako egitaraua ere antolatu du aurtentz; hortaz, rock kontzertuez gain, batzordeak antolatutako ekitaldi sorta ederra egongo da Bideberrin. Gainera, batzordearen hasierako helburua jai parte hartzaileagoak bultzatzea izanik, txosnak 08:00etan itxiko dituztela eman dute aditzera batzordekoek. Giroa gauean bakarrik egoten dela ikusi dute, eta herriarrek arratsaldeko ekitaldietan ere parte hartzeko hartu dute erabaki hori.

Txosna batzordeak prestatu duen egitarauaren barruan, batzuk aipatzearen, domekan, bertso-poteoa egongo da, Unai Itu-



ARTXIBOA

Astelehenean, baltsa-jaitsiera egingo dute, Algodoneratik Santa Marinako zubiraino.

Txosnen guneko egitaraua

EGUBAKOITZA 17

20:00: KALEJIRA, gaztetxetik txosnetara.

20:30: Txosnen irekiera ekitaldia: txalapartariak, bertsolariak, txosnaren igoera eta etxafuegoak.

23:00: Rock kontzertua: La secta, Meows eta Super cools.

ZAPATUA 18

23:00: KONTZERTUA: Rock A. Hulas, Money Suzuki eta Elevators.

DOMEKA 19

18:30: BERTSO POTEOA, Unai Iturriaga eta Jesus Mari Irazu bertsolariekin.

20:30: TXOTX HERRIKOIA, txorizoa, patata-tortilla, gazta eta menbrilloarekin.

ASTELEHENA 20

19:00: BALSA-JAITSIERA, Algodoneratik Santa Marinako zubira.
22:00: KONTZERTUA: Betagarri, Kuraia, Uko eta Basque Country.

MARTITZENA 21

14:00: HERRI BAZKARIA, San Martin plazan.
20:00: KALEJIRA, Elektrotuna taldearekin.
23:00: TXOSNA ERREKETA.

Bideberri

Egubakoitza
20:30

Martitzena
23:00

Bost egunean egongo dira zabalik

rriaga eta Jesus Mari Irazu bertsolariekin. Astelehenean, berriz, baltsa-jaitsiera, Algodonerako zubian hasi eta Santa Marinako zubiraino. Gainera, Txapa Irratiko kideek zuzenean emisioak egingo dituzte egubakoitzean eta domekan Bideberrin bertan.

GAZTETXEA ERE JAIETAN

Gazte Asanbladak Txosna batzordeko kide izan eta Bideberriko egitaraua antolatzen parte hartu duen arren, gaztetxean bertan egingo diren beste ekitaldi batzuk ere antolatu ditu. *Jaixetan be autogestiñoaren bidetik* lelopean, ekitaldiok antolatu dituzte: egubakoitzean, 23:00etan, Aritz Sound Sistem eta Daddy Jeff musikariekin musika afrikarra eta *hip-hop*-a egongo da. Zapatuan, 19:00etan, Fly Shit eta Dog Bite taldeen emanaldia. Domekan, 23:00etan, DJ festa. Eta martitzenean, 22:30ean, Extorsion taldearen kontzertua. Bestalde, *Astindu* fantzinearen ale berezia kaleratu eta salgai jarriko dute tabernetan eta euren txosnan.



INMOBILIARIA

LEGAZPI
Santikutz 8.
943 73 05 25

10 URTEKO
ESPERIENTZIA!



INMOBILIARIA

BERGARA
Ibargarai 3.
943 76 97 97

Ondo
pasau
jaixak!


YON BILBAO S.M.

Ondo pasau
Pazkuetan!

• ERA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK • BERO AKUMULADOREAK • KOMERTZIO ETA ETXEETARAKO MEGAFONIA
• ATEZAIN ELEKTRONIKO ETA BIDEO-ATEZAINAK • SEGURITASUN SISTEMAK • ARGIKUNTZAN ESPEZIALISTAK

34 URTEKO ESPERIENTZIA LUZEA

Tallerra eta erakustokia: A. Fleming 11. Tf eta faxa: 943 76 28 05 • Etxeko helbidea: Irizar 3. Telefonoa: 943 76 26 32



**20 urte zuekin,
egunez egun,
euskaraz.**

**Baita
Pazkuetan
ere!**


UDAL
EUSKALTEGIAK

**BERGARAKO UDAL
EUSKALTEGIA**

Zabalotegi, 13 • BERGARA
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
berg.euskudal@euskalnet.net



Burdiñate 1. 943 76 02 57



Toki Eder plaza 3. 943 76 14 87

Batean edo bestean, zerbitzurik onena geurean



**KONDE
PANADEROKUA**

Ondo pasa jaixetan!



PAZKUETAKO MIRARI BANATZAILEAK:

ARIZNOA

ARRANO

ARTEKALE PIZZERIA

AVENIDA

DIXULA

ETXAGI

EUXEBIO II

FRONTOIA

GANBARA

GURIA

INFERNOKUA

INTXORTA

IRRINTZI

KAFE

KORTAZAR

MITOR

OILAGORRA

POL-POL

POPIS ALDOKA-MALDOKA

SIRIMIRI

TITO'S

URRATS

USOA

ZER NAHI

ZUHAIZTI

ONDO PASAU DANOKI!



JATETXEA



TABERNA

**Eguneko menua • Plater konbinatuak
Kintadak • Bataioak eta jaunartzeak**

Fraiskozuri 7. Bergara. 943 76 20 40.

ANTXONI



*Matxiategi 4.
Tf. 943 76 57 99*

*Zurradero 2.
Tf. 943 76 01 26*



OLABE

okindegia - gozotegia



*Lantokia.: Amillaga kalea
Tf. 943 76 72 28*

Bergara

**IRALA
Autozerbitzua**

*Trizar pasealekua, 3
Tf. 943 76 10 71*



CAMP

TARANTELLA, NUEVA ETAPA ETA DIAMANTE

Dantzazaleek hiru hitzordu izango dituzte aurten ere

Plazan eta Espoloian izango dira 'camp' dantzaldiak, Tarantella, Nueva Etapa eta Diamante taldeen eskutik

JULEN IRIONDO

Dantza maite dutenek izango dute aurten ere gorputza mugimenduan jartzeko aukera. Izan ere, hiru *camp* dantzaldi izango dira jaietan, Espoloian eta San Martin plazan.

Dagoeneko Bergaran egon den talde bat izango da dantzazaleen gosea asetzen ahalegintzen lehenengoa. Izan ere, Nafarroako Tarantella orkestra behin baino gehiagotan izan da gure herrian, eta azkeneko aldiz, urrutira joan barik, iaz bertan.

Tarantella orkestraren emanaldia bihar, zapatua, izango da, 23:30ean. Gisa horretako musikarekin dantza egitea maite dutenek Espoloira hurreratu baino ez dute.

Hamabi lagunek osatzen dute Tarantella orkestra. Horietatik, lauk musikari ahotsa jartzea dute ardura nagusi; beste zortzien artean, oster, maki-



Diamante orkestrak estilo askotariko musikaz osatutako ikuskizuna eskainiko du Espoloian.

natxo bat musika-tresna jotzen dituzte: gitarra, baxua, tronboia, akordeoia, tronpeta, flauta,...

Aurtengoa hogeigarren urtea dute Tarantellakoek agertokietan. Urte horie-

Tarantellak emango du lehen 'camp' dantzaldia. Kantua, dantza eta beste hainbat osagai batzen ditu ikuskizunak

tan guztiotan, kantua ez eze, dantza eta bestelako osagaiak dituzten ikuskizunak ere eskaintzen ibili dira.

Zapatuan nahikoa egin ez dutenendako, domekan ere izango da dantzarako

Espoloian eta plazan

Zapatua
23:30 / Tarantella

Domeka
23:00 / Nueva Etapa

Astelehena
23:00 / Diamante

aukera, Nafarroako beste talde nafar baten eskutik.

Izan ere, etzi, domeka, Nueva Etapa orkestrakoen txanda izango da. San Martin plazan eskainiko dute emanaldia, gaueko hamaketatik aurrera.

AMAITZEKO, DIAMANTE

Dantzarako erritmoak izango dira nagusi Nueva Etapa taldearen kontzertuan, baita Diamante orkestraren emanaldian ere.

Astelehenean, maiatzaren 20an, egongo da Ciudad Realetik etorriko den taldea entzuteko aukera. Espoloian ariko dira, horiek ere 23:00etan hasita.

Diamante orkestrak hiru zatitan banatutako ikuskizuna ekarriko du Bergarara. Erritmo musikal desberdina izango du zati bakoitzak: lehenengoa, areto musika entzun eta dantzatzeko aukera izango da (salsa, pasodobleak, merengea,...); bigarrenean, jazz-bluesa; eta azkenekoan, pop-rocka. Emanaldian kantari eza-gunak ere imitatzen dituzte Diamante taldekoek.

EAJ
PNV

Ondo pasau jaixak!

BULEGOA Tel. eta faxa: 943 76 47 00

TABERNA Tel. 943 76 49 33

San Pedro 4, BERGARA

GANTXEGI

Telesforo Aranzadi, 2. 943 76 00 79

Jai zoriontsuak bezero guztiei!



GAZTETAN

BERGARAKO JAIETAKO OROITZAPENAK

Orain dela urte batzuetako Pazkoak gogoan

Bergaran badira urtero Pazkoetan jai giroaz gozatzea gustuko duten koadrila ezagunak. Horiengana jo dugu lehengo jaiak gogora ekartzeko.



Koadrilen Eguna umore onean

Juan Egaña *Pitia*-k utzi digu goiko argazkia. 1964ko Pazkoetakoa da, eta argazkian agertzen direnek 24 urte inguru zituzten orduan. Sasoi hartan, koadrilek ez zuten erabiltzen brusarik, baina umorerik eta sasoirik ez zitzaion falta. Argazkia ikus-tea besterik ez dago. *Pitia*-ren esanetan, goizean zezena ikustera joan, gero Askasibar tabernan salda hartu eta txikiteoan ibiltzen ziren lagunartean. Gauez, Espoloiko dantzaldira joaten ziren: "Kalabaza mordua hartuta gare", diosku umoretsu.

Hauexek agertzen dira argazkian, ezkerretik eskumara, zutik: Juanito Iturralde, Roman Gallastegi, Luis Mari Larrañaga, Jesus Madariaga *Txikixa* eta Migel Lazkano; eta makurtuta, berriz: Jesus Mari Alberdi *Satorretxe*, Julio Ugarte, Jose Antonio Agirre *Etxetxo*, Juan Egaña *Pitia* eta Pedro Egaña.

San Martzialgo erromeriaren gaineko estampa

Duela hogeita hamasei urte inguruko argazkia da goian duzuenena. Pazkoetakoa, jakina, oraindik ere Estampa Lehiaketa egiten zuten garaikoa. Argazkiko koadrilak San Martzialgo estampa egin zuen, eta San Martzialetan egiten dugun moduan, kalejiran eta dantzan ibili ziren San Martin plazan, baserritar jantzi-ta. Halaxe ikus ditzakegu irudian, gainera. Dena dela, argazkian ez daude diren guz-tiak; koadrilaren zati bat baino ez ei da agertzen.

Ezkerretik eskumara hauek dira argazkiko gizon eta emakume koadrila: Pello Garitano, Arantza Askasibar, Mari Sol Gil, Javier Garitano, Isabel Coranti, eta Bittor Alberdi.

Argazkia, Pello Garitanok utzi digu.



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Etxagibel notarioa 1. 20500 ARRASATE
Tf. 943 71 24 25. Faxes: 943 71 22 98

anezka

BARRUTIK ERE LIRAIN SENTI ZAITEZEN

Espoloia, 8. 943 76 59 25



GAZTETAN

Batzuek esaten dute urterik urtera Pazkoetako egitarauan ez dagoela aldaketarik. Hala ere, asko aldatu dira jaiak, eta garai baten arrakasta handia zuten ekitaldiek ez dute tarterik orain. Belaunaldien arteko jauzia nabaria da argazki zaharrei erreparatzen badiegu. Hainbat koadrilarengana jo dugu lehengo Pazkoetako giroa berreskuratu nahirik, gaztetan jaiak zelan bizi izan zituzten jakiteko. / MONIKA BELASTEGI ETA EDU MENDIBIL



Jaiak koadrilan, ondo baino hobeto

Duela hogeita hamar urte ateratako argazkia dugu goikoa, 1972. urteko Mendekosteetan, hain justu ere. Urtetxo batzuk pasatu diren arren, oraindik ere bere horretan jarraitzen du koadrilak, eta maiz elkartzen direla esan digute. Neska eta mutil koadrila bana ziren hasieran, baina hamalau-hamabost urte zituztela bi taldeak elkartu, eta ordutik hona elkarrekin dabilta. Euren artean ezkondu ere egin dira batzuk.

Ezkerretik eskumara honako hauek agertzen dira argazkian: Karmele Lasaga, ezezaguna, Jose Manuel Elkoroberezibar, Rosi Imaz, Arantxa Muxika, Josetxu Gallastegi, Aintzane Bideluze, Aitor Azkarate eta Enrike Jauregi.

Argazkia, Ana Ilarduiak ekarri digu.



Munduko gertakarien inguruko estampa

Estanpen Lehiaketa egiten zuten Pazkoetan 1970eko hamarkadara arte. Zalantza barik, jaietako ekitaldi arrakastatsuetakoa zen sasoi hartan. Herriko koadrila gehienek hartzen zuten parte eta mozorrotzeko aitzakia ezin hobea zen. Orduko egoera politikoa zela eta, ziurrenik Aratusteetan baino jende gehiago mozorrotzen zen jaietan. Argazkiko koadrilak munduko gertakarien inguruko estampa egin zuen 1968a inguruan. Ameriketako Estatu Batuak eta Vietnam gerran ziren, eta vietnamdarrei elkartasuna adierazi nahian-edo, hor ditugu hango jantziekin dotore-dotore.

Argazkian, ezkerretik eskumara: Angel Aranguren, Mila Portu, Mertxe Laskurain, Juanita Madariaga, Ana Jesus Guridi, Jose Gauna eta, atzerago, Miguel Jesus Iñarra eta Serafin Quintana.



PUERTAS BRIKO-ETXE

ZORIONAK

Ate blindatuak eta barrualdeak, taula aglomeratuak, melaminak, moldurak, markoak, janbak, zurgintzarako materiala, burdiñeriak, egurrezko leihoak, horma-armairuak

Urteaga 31 - Apdo.261

943 76 07 26

20570 Bergara



Sukaldeak. Horma armairuak. Neurrira egindako altzariak. Ateak eta leihoak. Arozlanak.

BERGARA Tel. 943 76 58 86 / 670 765 886

Pentekoste jai zoriontsu eta alaiak guztioi!

SUKALDARITZA LEHIAKETA

Hamabost elkarte lehian bakailao lehiaketan

Pil-pil erako bakailaoa egin beharko dute sukaldaritza lehiaketan parte hartzen dutenek

JULEN IRIONDO

Hamabost elkarte eman dute izena bihar zapatuko Sukaldaritza Lehiaketan parte hartzeko. Bakailaoa goxo-goxo prestatzen ahaleginduko dira guztiak ere.

Mendekoste jaietan ezin Sukaldaritza Lehiaketa falta. Lehiaketan, urtero moduan, herriko elkarreetako kideak ariko dira lehian, bakailaoa pil-pilean nork hobeto prestatu.

Hamabost elkarte eman dute izena lehiaketan

parte hartzeko. Elkarre bakoitzetik, bi ordezkari ariko dira lanean, sukaldaria eta laguntzailea.

San Martin plazak egingo du sukaldearena. Goizeko hamaika eta erdietan hasiko da lehiaketa, eta antolatzaileen ustez, ordu eta erdi geroago, 13:00ak alderako-edo, gertu egon behar luke bakailaoak.

Baina bakailaoa egiteko, osagaiak behar. Bada, osagaiak erosteko dieta bat emango dio Udalak lehiaketan parte hartuko duen elkarte bakoitzari, eta gero elkarte bakoitzarena izango da dendara joan eta osagai horiek lortzeko ardura.



Parte hartzaileek ordu eta erdi inguru izango dute bakailaoa prestatzeko.

Irabazleek sukalderako tresneria sorta bat jasoko dute opari. Horrez gain, lehen hiru sailkatuei garaikurra emango diete

Osagaiak, hortaz, parte hartzaileek eraman beharko dituzte; ez, ordea, bakailaoa prestatzeko tresneria. Izan ere, sutegiak, mahaiak, lurrezko kazuelak eta sukaldeko gainerako tresneria Udalak jarriko du. Lehiakideek ez dira horretaz arduratu beharko.

Osagai onekin, tresneria egokiarekin eta, betiere, sukaldean fin lan eginez, hamabost bikoteek prestatutako bakailaoak goxo-goxoak egongo dira, seguru. Epaimahaiak ez du lan samurra izango goxoetan goxoena zein den erabakitzen. Baina bateren bati

eman beharko diote saria.

Lehen saria eskuratzen duenak sukalderako tresneria jasoko du opari, aurretantzean ere elkarrean jaki onak prestatzen jarraitzeko. Horrez gain, lehenengo hiru sailkatuek garaikur bana jasoko dute. Horiexek, hortaz, epaimahaiak hoberekin direla irizten dien elkarreendako antolatzaileek prestatutako sariak.

ETA BAKAILAOAREKIN, ZER?

Edozelan ere, sari onena, agian, horrenbeste kontuarekin prestatutako bakailaoa jatea izan liteke.

San Martin plazan

**Zapatua
11:30**

Antolatzaileek txorizo pintxoak banatuko dizkiete lehiaketa ikustera doazenei.

Biko parte hartzaile bakoitzak berak ikusiko du prestatutakoarekin zer egin. Elkartera eraman eta hantxe lagun artean jatea izan liteke aukeretako bat.

Esan dugunez, sukaldariak 13:00ak alderako eduki beharko dute egina bakailaoa. Gero, epaimahaiaren txanda izango da. Epaimahaiaren lana izango da hamabost lehiakideek prestatutakoa banan-banan dastatzea, onena zein izan den erabakitzeko.

Hortaz, sukaldariak euren lana amaitu eta epaimahaiak erabakiaren berri eman arte, denboratxo bat pasatuko da. Ordurako gosetxo ere eginda eta horrelako jaki ederrak aurrean izanda, lehiaketa ikustera hurreratzen direnei jasanezin egin dakieke itxaronaldia. Horrelakorik gerta ez dadin, antolatzaileek txorizo pintxoak banatuko dituzte, doan, ikuslearen artean.

Horrez gain, lehiaketak irauten duen bitartean, Josu eta Jokin trikitilariek alaituko dute giroa, soinu eta pandero doinu. On egin!

ZAIATZKO

TELEKOMUNIKAZIOAK



Orain, Via Digital-ekin, nahi duzuna bakarrik ordaindu

Eta orain, gainera, dekorazioareko opariekin

Telesforo Aranzadi 3, BERGARA. 943 76 10 66

Jaixetan ondo pasau!!


Ipiñarri

zerrategia S.L.

IBARRA Z/G. 20570 BERGARA. TELEFONOA: 943 76 15 93.

Altzariak
Arozgintza
Eraikuntza
Enbalajea

Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



Ate irristagarriak



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



AZKARATE
AROSZTEGIA

Telleria, 19 B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
ARETXABALETA
Tel.: 943 77 01 24

ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka, 4 behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



J A N T Z I D E N D A

LASAGABASTER

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55



ETXE APAINKETA

HERRI-BAZKARIA

JAIETAKO AZKEN EGUNA

Goserik ez da behar herri bazkarira joateko

Jakiez gain, giro ona ziurtatuta dago martitzenean, hilaren 21ean, egingo den herri bazkarian

JULEN IRIONDO

Dagoeneko ohitura bilakatu den moduan, jaietako azken egunean egingo dute herri bazkaria. Bazkaldu aurretik eta bazkalostean izango dira ekitaldiak.

Egia esan, jatuna izatea ez da ezinbesteko baldintza datarren martitzenean, hilaren 21ean, egingo duten herri bazkarirako izena emateko. Izango da, seguru, platera bakoitzetik bi aldiz hartuko duenik, edo, agian, jatekorik ia probatu ere

egingo ez duenik. Izan ere, jakietatik haratago, festa giroa izan ohi da herri bazkariko osagai behinena.

Dena dela, lehenengo taldekoa izatekotan -hau da, jatunen taldekoa-, hona hemen herri bazkariko menua: hasteko, espagetiak ganba eta txanpinoekin; gero, solomo arrautzeztatu piper gorriekin; postrerako, hojaldrezko etxeko tarta; eta bazkaria biribiltzeko, kopa eta kafea.

Mahaian jartzeko ordua 14:30ean jarri badute ere, lehenago hasiko dira herri bazkariaren inguruko ekitaldiak. Hain justu, hitzordua 13:00etan da, Pol-Pol tabernan. Han eta orduan



BERRIGARA

Herri bazkarian 200 lagun inguru batzea espero dute antolatzaileek.

Herri bazkaria San Martin plazan izango da; eguraldi txarra egiten badu, osterara, Seminarioan jarriko dute 'jantokia'

hasiko dute gerturatutako txikiteoa; eta marianitoei, kalimotxoei eta garagardoei laguntzeko, trikiti doinuak. Izan ere, bazkaria bitartean trikitalariek alaituko dute tabernatik tabernarako bidea.

Bazkalostean -16:00ak aldera-, berriz, nagiak uxa-

tu eta inor loak har ez dezan, koadrilen arteko jokoak izango dira. Txarangaren emanaldiarekin gozatzeko aukera ere egongo da arratsalde partean.

Jokoak amaituta, berriro ere trikitalariek alaitutako txikiteoa izango da, 21:00ak ingurura arte.

TXARTELAK, DOMEKARA ARTE
Aurten, herriko zenbait koadrilatako ordezkariek, Etxerat taldeak, Jardunek eta Xamatx dantza taldeak hartu dute herri bazkaria antolatzeko ardura.

Bazkarirako txartelak Ariznoa, Pol-Pol eta Arrano tabernetan, Kortazar txokolategian eta Jarduneko egoitzan jarri dituzte salgai. Denetara, 200 bat jarri dituzte eta antolatzaileek, denak ez bada, gehienak saltzea espero dute. Txartelak eskuratzeko azken eguna domeka, maiatzaren 19a, izango da,

San Martin Plazan

Martitzena
14:30

Menua: espagetiak, solomoa eta tarta. Kafea eta kopa.

Prezioa: 12 euro.

Herri bazkariko egitaraua

13:00: TXIKITEOA
Txikiteoari ekiteko hitzordua, Pol-Pol tabernan. Trikitalariek alaituko dute bazkalordura arteko giroa.

14:30: BAZKARIA
Herri bazkaria San Martin plazan.

16:00: JOKOAK
Koadrilen arteko jokoak eta txaranga doinuak. Horiek bukatzean, berriro ere txikiteoa, trikitalariek, 21:00ak aldera arte.

eta trukean 12 euro ordaindu beharko dira.

Herri bazkaria San Martin plazan izango da, hasiera baten; hori bai, eguraldi txarrak festa hondatzeko saiakera egiten badu, Seminarioko patioa bilakatuko da jantoki.

Kontuak kontu, eguraldi ona edo txarra egin, giro ona ziurtatuta dago martitzeneko herri bazkarian.

- Lehen mailako zerbitzua
- Hatzamar bat mugitzeko gauza bazara, Videomatic erabiltzeko ere bai
- Bideo berri guztiak
- Zatoz prezioez galdetzera!

DVD bideoak
ere badauzkagu

DVD



IRALA
Bideoak

Zorionak guztioi!

Simon Arrieta 4. Telefonoa: 943 76 21 81. Faxe: 943 76 73 33. E-maila: video_irala@jet.es



*Saneamientos
de Gipuzkoa, S.L.*

- Saneamendu eta berogintza materiala
- Bainugelarako osagarriak: Roca

Santalaitz 2,
ITV/IAT ondoan
943 76 06 44
F 943 76 06 45

Jai zoriontsuak guztioi!



Saunier Duval



DICOMAN S.L.

San Lorentzo, 21
20570 Bergara
Laguntza teknikorako zerbitzu
ofizial baimendua
Tf. 943 76 06 61

BEROGAILUAK, KLIMATIZAZIOA ETA UR BEROA

BILBO garraioak

Bergara-Bilbo eguneroko zerbitzua / Partikularrendako eta industriendako



Leizariako San Lorentzo 19, 3C.
943 76 35 74 / 609 479 443

Ondo pasau danok jaixetan!



AGIRRE

HORTZ KLINIKA

Nagore eta Alaitz Agirre odontologoak
eta Amaia Etxeberria

- Odontologia orokorra
- Periodontzia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Implanteak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Ibargarai, 9. 1-B
943 76 00 23
09:00-13:00 eta 17:00-21:00



Ondo pasau Pazkuak!

Mizpildi 8
943 76 12 32
BERGARA



MIZPILDI



OKINDEGIA

Jai zoriontsuak guztioi!



Matxiategi 1
943 76 72 73
BERGARA

**Kafea ere
dasta
dezakezu!**

ELKARRIZKETA MARIA URZELAI AKTOREA

“Umeekin joanda, gurasoek ere ondo pasatzen dute ‘Badum mundua’ ikusten”

JULEN IRIONDO

Bergararra izan arren, Bilbon bizi da egun Maria Urzelai. 24 urte ditu eta ogibidez aktorea da. Hortzmuga antzerki taldean ari da. Konpainia horrek umeendako *Badum mundua* izeneko lana ekarriko du Bergarako jaietara.

Noiztik zabilta antzerkia egiten?

Unibertsitatean nengola, duela bost urte-edo, Kazetaritzako bigarren edo hirugarren mailan ari nintzela, konturatu nintzen ez nuela kazetaritzaren bideetik jarraitu nahi, eta ikastaro batzuk egiten hasi nintzen. Ikasketak amaitu arte ikastaro horiek egiten ibili nintzen, eta ikasketak bukatzean, Basauriko Antzerki Eskolan sartu nintzen. Han nenbilela, duela pare bat urte, Hortzmuga-koek deitu zidaten muntai bat egiteko, eta orduetik hona haiekin nabil.

Hortaz, antzerkian hasi zinenetik Hortzmuga taldean bakarrik ibili zara?

Talde bezala Hortzmuga-ekin bakarrik ibili naiz lanean. Edozelan ere, beste gauza batzuk ere egin ditut, zaletasunez, baina niri jaten eman didana konpainia hori izan da.

Taldea sortu zenetik hona zabilta bertan ala lehenagokoa da Hortzmuga?

Taldeak hamar urte daramatza lanean, baina lehen ez zuten horrenbeste antzerki egiten, baizik eta animazioak, lantegiak, hankalúzeak, ... Animazioaren alorrean gauza txikiagoak egiten hasi ziren, baina poliki-poliki sendotuz joan da Hortzmuga taldea.

Bergaran, zer antzeztuko duzue?

Badum mundua izeneko lana antzeztuko dugu. Umeendako musikal bat da, Ander Lipusek zuzendutakoa. Duela pare bat urte estreinatu genuen eta oraindik lan berarekin jarraitzen dugu, antzezteko toki asko dugu-eta oraindik. Ezaugarriak dagokie, esan dudan moduan



BERRIGARA

“Umeendako kontakizuna da ‘Badum mundua’, erritmo bizikoa, oso koloretsua. Umeek oso ondo pasatzen dute”

umeendako kontakizuna da, erritmo bizikoa –tarte-ka-tarteka pertsonaiak kantuan eta dantzan ibiltzen dira–, oso koloretsua, gure konpainiak jorratzen duen estilokoa, oso ikusgarria. Egia esatearren, umeek oso ondo pasatzen dute *Badum mundua* lana ikusten.

Eta argumentuaren gainean, zer?

Bi pertsonaia dira, *Toto* eta *Goto*. Bat-batean postari bat agertuko da eta *Badum* mundura bidaia bat irabazi dutela esango die. Bi protagonistek bidaia egingo dute euren ametsak egi bihurtzeko asmoz, eta abentura antzeko baten murgilduko dira. *Badum* munduan, *badumjabemisteriotsu* batekin egingo dute topo, ... Hortik aurrera, ikusiko duzue zer gertatzen den.

Umeendako bakarrik da zuen lana?

Ez. Ikuskizun horrekin askotan pasatu izan zaigu gurasoek umeek baino hobeto pasatzea. Berez, ikuskizun familiarra da. Ez da helduendako bereziki, baina gurasoek, umeek

Xabier Maria Munibe Plazan

Zapatua
17:00

Hortzmuga taldeak
Badum mundua lana eskainiko du

Beste antzerki emanaldi batzuk

Maiatzak 19, 20:00

KALE ANTZERKIA

Trapu zaharra taldeak

Lau tenore izeneko lana eskainiko du Xabier Maria Munibe plazan.

kin joaten direnean, ondo pasatzen dute; izan ere, umeak nahiko txundituta geratzen dira, duen erritmo biziagatik. Gainera, umeen parte hartzea ere dezentean eskatzen dugu.

Ilusio berezia egiten dizu herrian antzezteak?

Bai, egiten dit, bai. Kontua da lan horrekin bi urte daramagula dagoeneko eta orain ez dela estreinatu zenean moduan. Baina bueno, herrian antzezteak beti da berezia. Gainera, lehenengo aldia izango da Bergaran antzezten duguna. Iaz, Antzuolan egon ginen, jaietan, baina beste ikuskizun batekin, kalejira antzerako batekin.

Baduzu jaiekin gozatze-ko asmorik?

Ez. Oso lanpetuta nabil; ez dut jaietarako astirik.

aldaketarako
konpromisoa

autodeterminazioa eta bakea

batasuna

TELEBISTA

GOITB

GOITBk ibar osora zabalduko du jaien berri

Bergaran grabatutako albistegia, 'Xeiberri jaietan' saio berezia eta Dantza Txapelketa eskainiko ditu

JULEN IRIONDO

Ibarreko telebistak ez du Bergarako Mendekoste jaietan hutsik egingo. Kamearak, kazetariak eta gainerakoak ekarri, eta hiru saio grabatuko dituzte herrian.

Goiena Telebistak Bergarako eta ibarreko gainerako etxeetara eramango du Mendekoste jaien berri. Bergarako jaiak direla eta, hiru emanaldi berezi egingo ditu GOITBk.

Alde batetik, San Martin plaza telebista plato bila-

katu eta bertan grabatuko dute martitzen (maiatzak 21) eguerdiko albistegia. Azken orduetan ibarrean jazotako albisteen berri Bergaratik emango du, horrenbestez, GOITBk.

Edozelan ere, grabaketa platoa ez eze, beste hainbat berezitasun ere izango ditu martitzen eguerdiko albistegiak ohiko albistegiak alderatuta.

Batetik, aurkezleak. Izan ere, Maider Osa kazetariak aurkeztu ohi ditu normalean eguerdiko albistegiak. Martitzenean ere Maider ibiliko da lan horretan, baina normalean ez bezala, ez du bakarrik egingo albiste kontakizuna:



BERRIGARA

laz bezala, aurren ere Bergaran grabatuko dute martitzen eguerdiko albistegia.

Bergaran grabatuko duten albistegiak bi zati izango ditu: bata, ohikoa, albistegia bera; bestea, magazin erakoa

Gorka Etxabe GOITBko iluntzeko albistegiko aurkezlea izango du aldameanean.

EDUKIETAN ERE, DESBERDIN Martitzeneko saioa ez da ohikoen berdina izango, ez iraupenean ez edukietan. Izan ere, ohi baino luzeagoa

izango da Bergaran grabatuko duten albistegia, 45 minutu ingurukoa.

Edukiei dagokienez, bi zati izango ditu albistegiak: bata, ohikoa, albistegia bera, eguneko albisteez hornitua; bestea, berezia, magazin erakoa. Tarte horretan, gonbidatuek, elkarrizketek

eta erreportajeek izango dute tokia.

Ordubietako albistegia errepikatu egingo du GOITBk, 20:00etan. Hori bukatzean -20:45ean-, berriz, *Xeiberri jaietan* Mendekosten gaineko saioa emango du ibarreko telebistak.

Xeiberri saioa kazetariak Bergarako kaleetan, hara eta hona, ibiliko dira jaiak irauten duten bitartean. Eta aurreko egunetan jasotako uzta Pazkoetako azken egunean ikusteko aukera izango da Iratxe Eguen elorriarrak aurkezten duen saioan.

San Martin plazan

**Martitzena
14:00**

Goiena Telebistak Bergaran grabatuko du martitzen eguerdiko albistegia.

**GOITB
Mendekoste
jaietan**

**MAIATZAK 21
14:00: ALBISTEGIA**
Eguerdiko albistegia errepikatu egingo dute arratsaldean, 20:00etan.

20:45: XEIBERRI
Xeiberri jaietan saio berezia Bergarako Mendekosten gainean.

**MAIATZAK 22
20:30: DANTZA**
Domekan jokatu den 25. Euskadiko Dantza Txapelketa.

Baina hori ez da izango guztia. Izan ere, eguaztenean ere izango da Bergarako jaiekin lotutako saiorik Goiena Telebistan: iluntzeko 20:30ean hasita, 25. Euskadiko Dantza Txapelketa emango du ibarreko telebistak.

Txapelketa domekan, maiatzaren 19an, jokatu da, San Martin plazan. Hortaz, hantxe izateko aukerarik ez izanez gero, ez larritu, GOITBk grabatu eta hilaren 22an, 20:30ean, emango du-eta.



LASA
Jatetxea

OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 943 76 10 55 Faxa: 943 76 20 29

Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu

Zorionak denoi!





OGIZUN
koop. elk.
okindegia

San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49


Zubillaga 10
ONATI
943 78 24 13

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53
LASTER ZABALIK!


B E R G A R A



Luis Mari Azkargorta



Jabier Lazkano



Mikel Zubimendi

ZENBAT?

Autobusean isiltasuna
Lurrina kristalean
Eguna argitzear da
Norbait kantuan eta ahopean

Lur arrotz hauetan barrena
Paisaia ezezagunei so
Kantu batek narama
Berriro ere zuganaino

Aste bat, aste bi ostera
Arrari leialak legez
Izen gabeko herri
Hauetan barna behin eta berriz

Zenbat gauza esateko
Zenbat gau esperoan
Biok elkarri begira
Denbora aurrera doa

Zure eskua nirean
Mehatxua pasiuari
Ohituko ote naiz egundo
Kristal lodi hau laztantzera

Esku bete musu eta goraintzi
Herriko historiak
Mosto gorri eroriak
Eta irripar bat dakarkizut


Eskegi itzazu bihotzean
Asmo handien ondoan
Eta barkatú egidazu
Nire begiok lanbrotzea

Zenbat jende kaleetan
Zenbat oihu ahoan
Elkarrengandik hain urrun
Denbora aurrera doa

Hitzak: Unai Iturriaga



Jose Migel Gaztelu




Iñaki Arietaleaniz



Mikel Askasibar



Xabier Oregi



Antxon Sasiain

Eta errefuxiatuak

**JAIK BAI, EUSKAL PRESOAK ETA ERREFUXIATUAK
EUSKAL HERRIRA ERE BAI**



Bergarako Euskal Presoak Euskal Herrira taldea

ALARDEA

AZPEITIKO ETA BERGARAKO KONPARTSAK PROTAGONISTA

Hirugarren erraldoi bikotea estreinatuko dute zapatuan

Herriko kaleetan

**Zapatua
18:30**

Kalejiran ibiltzeaz gain, hainbat gunetan dantza egingo dute

Jaira joateko jantzi den baserritar bikotea irudikatzen dute eta zapatuko alardean estreinatuko dituzte

MONIKA BELASTEGI

Erraldoi bikotea estreinatuko dute Pazkoetako zapatuan egingo duten alardean. Horrela, sei erraldoi egongo dira aurrerantzean Erraldoi, Buruhandi eta Kilikien Konpartsan.

az bi eta aurtengo Pazkoetan bete bi erraldoi estreinatuko dituzte, zapatuan. Baserritar bikotea irudikatzen dute; festa edo jairako jantzita dagoen baserritar bikotea. Hori horrela, emakumezkoak ilea mototsean batuta eta lore txikidun zapiarekin apainduta dauka. Alkandora ere lore txikiduna darama, eta gona, berriz berdea. Gizonezkoak, berriz, txapela beltza darama buruan, alkandora zuria eta txalekoa gorri-granatea. Prakei dagokionez, grisak dira, eta gerrikoa beltza, zintzilikario barik. Eta aurpegiko espresioa, norbaiti berba egiten ibiliko balitzaio bezala, eta eskutako bat gerrikoan.



Irudian, erraldioen konpartsa osatzen duten hiru bikoteak. Baserritarak, kaletar dotoreak eta jairako jantzita dagoen baserritar bikotea, Pazkoetan estreinatuko dutena.

Altuerari dagokionez, hiru metro eta erdi garai dira, eta hogeita hamarretik gora kilo pisatzen dute.

Mikel Ibartzabal panpinagileak egin ditu erraldoiak. Iaz estreinatu zituz-

tenak ere Mikelek egin zituen, Udalaren enkarguz. Hala ere, erraldioen itxura zehazteko orduan, hainbat kontsulta egin ditu Udalak: Moises Azpiazu dantza taldeko kideei, Bilboko Euskal

Museoko teknikariei eta konpartsa kideei.

SEI ERRALDOI

Bikote horrekin, sei erraldoi izango ditu aurrerantzean Erraldoi, Buruhandi

eta Kilikien Konpartsak, eta seiak batera ikusteko aukera edukiko dugu Pazkoetan, zapatuan egingo duten alardean. 18:30ean hasiko da, eta Bergarakoaz gain, Azpeitiko konpar-

tsak ere hartuko du parte. Alardeak herrian ibilbidea egingo duen arren, hainbat gunetan geratu egingo dira dantza egiteko. Xamatz taldea arduratuko da erraldoiak dantzan jartzeaz.

J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea

Odontologia orokorra

Implanteak

Ortodontzia

Ahoko zirurgia

Fraiskozuri 5A, I-D. BERGARA

Ondo ibili Pentekoste jaietan!



Tf. 943 76 56 88



TXIMELETA

Gozokiak eta Prentsa



Pentekoste jai gozoak opa dizkizuegu herritar guztioi

Ibargarai 2, Bergara

BOLU SUKALDEAK



2000eguneko garantia.
Aurrekontua konpromiso gabe.

Bolu, 22-behea . Bergara . Telefonoa eta faxa : **943 76 27 02**

ELKAR ELEKTRAGINTZA

**ZURE
ZERBITZURA!!**

Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA



SOLAR-CHECK
Tanning

NOBEDADEA:
Eguzkitik babesteko laminak!
Baita koloretan ere!

IBILGAILUENDAKO KRISTALAK

Autobus / Kamioi / Turismo / Furgoneta

Muntatzea • Salmenta • Konponketa

DESA/CRISTAL

943 76 36 09 Bergara • 943 69 16 16 Irura

Ondo-ondo pasatu jaietan...



50 urte baino gehiagoko
esperientzia
eta profesionaltasuna
egunez egun frogatuak.

Iturgintza, gas natural,
propano eta butano eta
berogailu instalakuntzak.

Sukalde eta bainu berrizketak.
Bainuko altzariak.

ITURGINTZA-BEROGAILUAK-GASA
BAINURAKO ALTZARIAK

Jai zorientsuak izan
ditzazuela!

Larrañaga
Eguren, B. M.

Juan XXIII
Tf. eta Faxe 943 76 11 88
20.570 BERGARA



BERGARA
Joseba Osa
Maiatzaren 21ean 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Iker Barquero
Maiatzaren 16an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Karmele Uribesalgo
Maiatzaren 19an 6 urte.
Zorionak! Etxekoak;
batez ere, Beñat.



BERGARA
Elena Asencio
Maiatzaren 22an
90 urte. Zorionak
amama! Etxekoak.



BERGARA
Iker Gorriti
Maiatzaren 18an 5 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Josu.



BERGARA
Josu Gorriti
Maiatzaren 18an 5 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Iker.



BERGARA
Yeraí Gomez
Maiatzaren 10ean 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Jon Mikel Aiausti
Maiatzaren 17an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ane Barragan
Maiatzaren 10ean 9 urte.
Zorionak! Gurasoak,
aitona-amonak eta Jon.



BERGARA
Mikel Gutierrez
Maiatzaren 21ean 4 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Aitzol.

BABESLEA

Raizabal

Artekalea 9
Tel. 943 76 11 83

Bidekurutzeta 20-22
Tel. 943 76 12 19

**Urtebetetze
tarta**
zuk nahi duzun
**argazkiarekin
eta formarekin!**

Eta agur-afarietarako tartak

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:

Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33

Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara

Elgeta: Erosle-Baltxungo

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaiozu ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.

Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAren agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA-OPARIAK

Bidekurutzeta 16. BERGARA. Tf. 943 76 23 94 - 76 12 65

**ZORIONAK
DENOI!**

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean erreforma

Pintura zerbitzu osoa

Moketak

943 76 14 60 • 607 447 494 • 943 76 59 59

BERGARA

**Ondo pasau
jaietan!**

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko maiatzaren 17a / 113. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

San Isidro eguna ospatuko dute zapatuan, aurten ganaduarekin

AINZANE IRIZAR

Maiatzaren 15ean, eguaztena, izan zen San Isidro eguna, baina azkeneko urtetan moduan, zapatuan ospatuko da egun hori Antzuolan. Goizean azoka egingo dute, eta aurten, iaz ez bezala, ganadua ere egongo da: behiak, ardiak, behorrak...

Iaz, hain ezagunak egin ziren ganaduen osasun arazoak zirela eta, ez zen ganadurik egon San Isidro eguneko azokan. Aurten, urteroko ohiturari berriro eutsi eta ohiko feria egingo dute. Antzuolako baserrietakoak izango dira feriako ganadu guztiak: behorrak, ardiak, astoak, behiak, txahalak eta idiak ere egongo dira. Herriko plazan bertan egongo dira ganaduok ikusgai.

Ganaduez aparte, baina, beste hainbat postu ere egongo dira zapatu goiz osoan zehar, elizpean eta Kalebarrenen; era guztietako produktuak ikusi ahal izango ditugu postu horietan: zilarra, kandelak, otarrak, ezta, lore sikuak, gazta eta txorizoa eta eskuz margotutako kamisetak, besteak beste.



Herriko plazan egongo da ganadu feria zapatu goiz osoan zehar.

Lehiaketara aurkeztutako kukumarroen erakusketa egongo da plazako iturri inguruan.

Goizeko hamaiketan meza ospatuko dute. Ondoren, eguer-

di aldera, Patxiko Txerren ipuingintzako sariak eta kukumarro lehiaketakoak banatuko dituzte udaletxe aurrean, 12:00etan. Sari banaketan ostean, 12:30 aldera,

bertso saioa izango dugu herriko plazan. Amets Arzallus Nafarroako txapeldun berria eta Ainhoa Agirreazaldegia bergararra ari tuko zaizkigu.

HERRITARREN HITZA / Beñardo Kortabarria • Kazetaria

Anzuola es tan pequeño...

Que no se ve en el mapa... abesten genuen txikitik. Aurreko baten inguruko batek Donostian taxia hartu behar izan zuen Antzuolara etortzeko. Antzuolara esan beharrean Martera esan izan balio nekez jarriko ei zuen taxistak harridura aurpegi handiagorik. Maiatzaren lehen lagun-kuadrilak Enkarterrieta-ko edari-dendak -tabernak baino finago geratzen dabisitatut genituen. Jende askorekin berba egin genuen, baina ezin gure berri zuenik aurkitu. Lanestosara jubilatu-tako azkoitiarra izan ezik. Horrelakoetan "Ah! Bai,

uraren herria" bezalako erantzunik nork ez du jaso?

Behin baino gehiagotan izan dut susmo hori, geure herriaz harro egon arren, zer bait garelake uste arren, Bergarako auzotik harantzago apenas ezagutzen gaituzte. Eta hotzean. Ba al dugu harro egoteko motiborik?

Herriaren arkitekturari begira, kurioso badago ere, ez dirudi turistak erakartzeko bestekoa denik. Mairuaren pasadizoa alde



"Antzuolarrok, ba al dugu harro egoteko motiborik?"

kirolari handiena elgetarra da, eta izan den antzuolar ospetsuena Lizartatar zeukan ia Euskal Herri osoak. Altzolako uraren

batera lagata, ez dugu historia handirik. Pentsa, independentzia bera diruz erosi genien bergatarrei-oraindik zorretan daude. Industria osasuntsu dago, eta ez da gutxi, baina larrugintzak ematen zion nortasuna galduta. Pertsonaia famatu horietakorik ere ez dugu. Daukagun

pareko markarik ere ez dugu...

Asuntoari buelta emateko garaia da. Indar hartzen ari den ur-lasterraren kontra igeri eginda gainera, eta gainontzeko guztiek tupust egiten duten harria gaundituta. Goikoei kasu egin barik -hau da, nortasun propioz- ezetz ofizialki Lizarragarazi berresteko gauza izan!

Hórrelakorik egin ezean etorkizuneko historialariek zera esango dute gutaz: "XXI. mendean oraindik baziren pizinarik gabeko herri batzuk: Abaltzisketa, Antzuola, Belauntza, Gatzaga...". Ezin ukatu hori ere urte batzuk barru nabarmenezko modua izango dela.

LABUR

Irakeko argazkien erakusketa datorren astean

Datorren egubakoitzean, maiatzak 24, 18:30ean, zabalduko dute Iraken gaineko erakusketa Olaranen, eta domekara arte egongo da zabalik. Goizez, 12:00etatik 14:00etara egongo da ikusgai; arratsaldez, berriz, 18:30etik 20:30era.

Anelkarren bitartez antolatuta da erakusketa hori. Estatu espainiarreko "Acción Verapaz" Gobernu Kanpoko Erakundearena da erakusketa, eta Irakeko gaur egungo egoeraren berri ematen digu erakusketak.

Gazteek ingelesa ikasteko aukera dute udalekuetan

Umeendako ezezik, herriko gaztetxoendako ere udalekuak antolatu ditu Udalak. 12 eta 15 urte bitarteko gaztetxoek ingelesa ikasteko aukera izango dute uztailearen 1etik 17ra egingo dituzten udalekuetan.

Parte hartu nahi dutenek maiatzaren 22a baino lehen eman beharko dute izena udalekuean edo liburutegian. Hamar laguneko taldeak osatuko dituzte, eta gazte bakoitzak, gehienez, 84 euro ordaindu beharko ditu, gainerakoa Udalak ordainduko du-eta.

Herriko azpiegitura sarea hobetzeko proiektua

Maiatzeko osoko bilkuran udalbatzarrak onartu zuenez, Ingenieria 21 enpresak idatziko du Antzuolako azpiegitura sarea hobetzeko proiektua. Proiektu horren helburua izango da herriko saneamendu eta hornikuntza instalazioak ezagutu, ondo zehaztu, eta aurrerantzean egin behar diren urbanizazio lanetarako irizpideak markatzea. Esate baterako, Urkuluko urtegitik ura ekartzen dutenean, herriko ura zela aprobetxatu aztertu nahi dute.

ELKARRIZKETA

JOSE ANTONIO LOBO/ACCIÓN VERAPAZ ERAKUNDEKO KIDEA

“Gerra ondoreneko enbargoak pobrezia handia ekarri dio Iraki”

A.I.


Datorren eguenean, maiatzaren 23an, Iraken gaineko hitzaldia egingo du Jose Antonio Lobok. Jaz, maiatzean, Irakera egindako bisitan ikusi eta entzundakoen gainean berba egingo du Olan etxean, 19:00etatik aurrera.

Irak, errugabeen sufrimendua izenburua jarri diozu egingo duzun hitzaldiari.

Bai; izan ere, sufrimendu handia ikusi genuen han; batez ere, gerraren eraginez, eta baita gerra ondorenetik jasaten ari diren enbargoaren ondorioz ere. Enbargoak pobrezia handia ekarri dio Iraki, bereziki, gizarteko sektore ahulenei, umei eta emakumei. Gainera, esan behar da, gerra eta enbargoaren aurretik ez zela batere herrialde pobrea. **Zein kontaktu izan zenituzten Iraken?**

Egia esan, gure esperientzia Iraken nahikoa mugatua izan zen; astebete pasatxo egin genuen han. Domingotar talde bat joan ginen, Irakeko V. Kristau Konferentzian parte hartzera. Gero, bidai hura aprobetxatuz, Irakeko hainbat domingotarrekin egon ginen. Hango egoera politikoak deskontzertatu egiten gintuen; dena dela, gu gehien arduratzen gintuena iraktarrek bizi zuten egoera zen, jendearen egoerak arduratzen gintuen, batik bat. **Zelakoa zen egoera hori?**

Irakrek bizi duen egoeraren gakoa lur azpian duen altxorra da: petrolio. Gerra hasi aurretik, proiektu ekonomiko indartsua zuen Irakrek, etorkizunari begira, azpiegitura ekonomiko indartsu bat sortzeko. Azpiegitura horrekin guztiarekin bukatu zuen gerrak. Gaur egun, izugarrizko gabeziak dituzte herriak. Datuen arabera, 1996an milioi erdi ume hil ziren enbargoaren ondorioz. Izan ere, janari falta eta bereziki botikena oso handia da.



“Irakrek bizi duen egoeraren gakoa lur azpian duen altxorra da, petrolio”

Hainbat ospitale bisitatu zenuten, ezta?

Bai; Konferentziako antolatzailerek hainbat toki bisitatzera eramán gintuzten. Ospitaletako egoera tamalgarria ezagutzeko aukera izan genuen; botika oso gutxi daukate eta bestelako mate-

“Ospitaletako egoera tamalgarria da: botika eta bestelako material falta daukate”

rialak ere falta zaie. Bisita horietan, gerra garaiko babeslekuak ere ikusi genituen, eta umezurtzetxeetan ere egon ginen.

Hamaika urte daramatzate irakiarrek enbargoa jasaten, eta jendea nahikoa frustratuta dagoen sententzia izan genuen.

KIROLA

Pirinioetara joateko irteera antolatu du Arrolak, gazteendako

Debagoieneko gainerako mendi taldeekin batera, gazteei zuzendutako irteera antolatu du Arrolak datorren asteko astebururako. Oraindik zehazteke duten arren zein tokitara joango diren, Pirinioetara joango dira asteburua pasatzera, maiatzaren 25etik 26ra.

Interesa dutenek Arrolako batzarkideei galde diezaiekete. Bestela, datorren martitzenean, maiatzaren 21ean, Arrolaren egoitzan emango dizuete informazio gehiago, arratsaldeko zazpiak eta zortziak bitartean.

EMAITZAK

FUTBOLA

Eibartarrak 5 Antzuola 2 (neskak)

Antzuola 1 Soraluze 3 (gazteak)

Zestoa 3 Antzuola 1 (kadeteak)


PALA

Lehen mailako finala

Manso-Iturbe 15 Azkarate-Jauregi 30

Bigarren mailako finala

Biteri-Biteri 30 Azkarate-Rodríguez 21





Zapatuan jokatu ziren palako finalak

Zapatu goizean jokatu zituzten herriko Pala Txapelketako finalak. Goizean goiz hasi ziren partiduak, zortzi eta erdietan, hain zuzen ere. Horregatik, jende gutxi egon zen partiduak ikusten, baina han elkartu ginenok partidu politikak ikusteko aukera izan genuen. Lehen mailan, Oskar Azkarate eta Tomas Jauregi (argazkian) 30-15 nagusitu zitzaizen Iker Mansori eta Ruben Iturberri. Bigarren mailan, berriz, Biteri aita-seeek 30-21 irabazi zieten Aitor Azkarateri eta Andoni Rodríguezi. /A.I.

LEKY-BERRI
MERENDEROA

Janariak
eta
edariak

Tf. 943 76 60 94
ANTZUOLA



Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea, 10. Antzuola. Tf. 943 78 71 78
Erakusketa: Kalebarren, 1. Antzuola. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haire egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak

- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

MUJKA
HARATEGIA



**Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak**

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko maiatzaren 17a / 98. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

Ertzaintzak Donostian atxilotu zuen Arrate Elkororen ustezko hiltzailea

OXEL EROSTARBE

Ertzaintzak, astelehen goizean atxilotu zuen Donostiako Virgen Del Carmen kalean Aitor Mendikute. Eguenetik Arrate Elkororen hilketaren egilea zelakoan bere bila ziharduten. Aurreko asteko gertaerak erabat saminduta gauzka elgetarrok.

Izan ere, Arrate Elkororen hilketak hitzik gabe utzi gintuen. Ustezko hiltzaileak zerbait egingo zuela ziotenak baziren arren, inork gutxiak uste zuen, egindakoa horren larria izango zenik. Ertzaintza bila zebilen gizonezkoa Aitor Mendikute zen, 34 urteko elgetarra. Emakume bat bortxatzeagatik eta beste bat bortxatzen ahalegintzeagatik, zazpi eta sei urtez egon zen kartzelan. Duela bi hilabete irten zen Aitor Mendikute kartzelatik. Eguenetik Ertzaintza bere bila zebilen, Arrate Elkorori lau labankada eman zizkiona bera izan zela uste zuten eta. Kostata, baina astelehen eguerdian Donostian atxilotu zuten, kalean zebilenean.

Lekukoek esan zigutenez, lau labankada jaso ondoren Arrate



Gertatutakoa salatzen Udalak egindako deiarri erantzunez, jende ugari batu zen barikuan herriko plazan.

Elkoro bere kabuz Hoteleraino joan zen laguntza eske. Hoteleko jabeak adierazi zigunez, konorte gabe geratu aurretik "Mendikute, Mendikute!" esan zuen Arrate Elkorok.

Horrek eta zenbait herritarren testigantzak eraman zuen Ertzaintza ustezko hiltzailearen bila atera. Azkenean Donostian burutu zuten atxiloketa.

Une gogor hauetan, GOIBEKOKALEtik elkartasuna adierazi nahi diegu gertatutakoagatik sufritzen ari diren familiar-ekoiei.

*Bariku iluntzean,
jende ugari batu zen
herriko plazan
Udalak deitutako
kale bilkurara*

*Herriko mendiak
miatzen jardun
zuen Ertzaintzak
gertatutakoaren
berri izan zuenetik*

*Donostiako kaleetan
atzeman zuen
Ertzaintzak Aitor
Mendikute astelehen
eguerdian*

ARETO FUTBOLA

Arineketan, gero eta liderrago

O.E.

Kanpotarrak daude aurreneko postuetan Areta Futboleko Txapelketan. Aurreko astean 5-5 egin zuten Arineketan eta Chievo taldeek. Eta Arineketan taldekoek sailkapeneko lehen postuan jarraitzen dute.

Aurtengo txapelketan lehenengo garaipena lortu zuen zapatuan Txapela taldeak, Komando Piperrak taldearen aurka 10-6 irabazita.

Aurreko asteburuan Vicios taldearen aurka 1-5 galdu eta gero, Bar El Arko taldearen aurka jokatuko dute oraingoan elgetarrek.



IBAN ARANTZABAL

Txapelak lehenengo garaipena lortu zuen zapatuan Komando Piperrak-en aurka.

PARTIDUAK

- 15:00: Spias-Komando Piperrak. MTS
- 16:00: Arineketan-MTS. Komando Piperrak
- 17:00: Chievo-Txapela. Bar El Arko
- 18:00: Bar El Arko-La Kokotxa. Chievo

SAILKAPENA

Taldea	P	J
1. Arineketan	5	3
2. Vicios	5	3
3. Chievo	4	3
4. Bar El Arko	4	3
5. Txapela	2	2
6. MTS	2	2
7. Spias	2	3
8. Komando Piperrak	0	3
9. La Kokotxa	0	2

LABUR

GOIBEKOKALEko afarirako txartelak salgai tabernetan

Ekainaren lehen, GOIBEKOKALEk 100 ale egingo ditu. Hori dela eta, Espaloian izango den jaialdiaren aurretik afaria antolatu du Goibeko Kultura Elkarteak.

Afarirako txartelak herriko taberna guztietan daude salgai, 12 euroren truke.

Egun horretan, gainera, Euskalkiaren Eguna izango da eta egun osoan hainbat ekitaldi egingo dituzte. Gauean, esaterako, Tapia eta Leturia taldearekin erromeria izango da Espaloian.

Eguraldi onak lagunduta ospatu zeben domekan Aseztzio Eguneko erromerixia

O.E.

Eguenian izandako gertakarixek eraginnda, beste urte batzuetan baiño jente gutxiago batu zan domekan Aseztzion.

Goiz-goizetik, Arrantza Txapelketiak emon zotsan hasieria aurtengo Aseztzio Eguneko erromerixiari. Aipagarrixa da, ordu eta erdi arrantzan ibilli arren, parte hartzaillie batek be ezin izan zebala arraiñik harrapau.

Gure Bordakuek gertatutako txorixuakin eta saldakin hamaiketakua egin zeben Aseztziora gerturatutakuek. Gero, nahi zebenek mezetara eta bestiak, bolotan egittera.

Mezia bukatzian, Arrate Elkororen hilketako gertaerak zirala-eta, miñutu bateko ixilunia gorde zeben Aseztzion batu ziran herritarrek eta kanpotarrek. Gero, dantza erakustaldixak izan ziran. Lehenengo, Elgetako neska-mutikuen saiua ikusteko aukeria izan giñuan eta harein ostian, Bergarako Moises Azpiazu dantza taldekuena.


Eguerdirako eguzkixa zan nagusi Aseztzion, eta bazkaltzen bertan geratu ziranek berotu galanta hartu zeben. Bazkalostian dantzan eta kantuan egitten jardun zeben. Hola bukatu zan Aseztzio Eguna, herrixan izandako gertaerek eraginnda, iñoiz baiño tristiagua izan dana.



Arrantza Txapelketako parte hartzailliek ezin izan zeben arraiñik harrapau.



Giruak lagunduta, oiñez etorri ziran herritarrek eta kanpotarrek Aseztziora.



Trikiti doiñuak entzun ziran aurtenguan be potzuaren inguruan.



Elgetako dantzarixek eta Moises Azpiazuakuek egin zeben dantza erakustaldixa benetan bikaiña izan zan.



Bazkaltzera geratutakuek berotu galanta harrapau zeben eguzkipian.

**JAR EZAZU
HEMEN
ZURE
PUBLIZITATEA**

Goibekokale



RECYDE, S.A.
Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es



AENOR
ER
Enpresa
Erregistratua
ER-0182/2/95

ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

**SAIOA ARANZABAL
MASAJEAK**

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea •
- Reflexologia •
- Hidromasajea •
- Kirol masajea •
- Solariuma •
- Drenaje linfatikoa •
- Algekin eginiko estalkia •



Dei ezazu **646 50 00 29** telefonora ordua eskatzeko

ERRETRATUZAHARRA

Filmetako zentsura salatzeke estampa 1973ko Pazkoetan

Garai baten oso arrakastatsua izaten zen Pazkoetako Estampa

Lehiaketa. Aratusteetan egiten den antzera, mota askotako mozarroak janzten zituzten herriko koadrilek, eta umorea izaten zen nagusi.

Alboko erretratua 1973ko Pazkoetakoa da. Koadrila horrek zineman indarrean zegoen zentsura salatu nahi izan zuen. Antza denez, biolentziatzko filmak heltzen ziren pantailetara, baina sexu irudiak ikustea beste kontu bat zen. Hori dela eta, erromatar jantzita joan ziren argazkikoak. Guztira, 40 lagun inguru irten ziren, nahiz eta erretratuan bederatzi bakarrik agertzen diren, *Neron* tartean. Bigarren saria jaso zuten lehiaketan. Hauek dituzue, ezkerretik eskumara:

Zutik: Karlos Ugarte, Felix Basabe, Juan Mari Corral, Patxi Bakaikoa, Jesus Mari Larrea, Igartua Cantera eta Jose Antonio Goiti.

Eta makurtuta: *Gin* Ilarduia eta Jose Manuel Alberdi.

Argazkia: Udal Agiritegia (Roman Larrañaga Fundoa).

**ADI IRAKURLE!**

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

MUJIKA **UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE**
FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Ondo pasa dezazuela denok Pazkoetan!

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA




zumelaga
JATETXEA

Jai zoriontsuak izan ditzazuela denok!

San Antonio 5 BERGARA. Tel. 943 76 20 21

59 urte zuen zerbitzura!



Latexeko burukoak

ESKAINTZA BEREZIA
Koltxoa erosteagatik
koltxoa estaltzekoa opari



Oinarri tapizatua



Latexeko koltxoiak



Era guztietako koltxoiak



'Aluminium' ohe artikulatuak

Zatoz
Masterreka 9ko
erakustokira



Kanape erainsgarria



Habi-ohea

Barrenkalea 23, Tel. 943 76 29 65 • Masterreka 9

ederTU

Jai zoriontsuak bezero eta herritar guztioi





Festa zorientsuak opa dizkizue

San Juan Erreka z/g Elgeta bidea. Bergara - Tel. 943 763 642 - Faxe 943 765 425

